

ARI GARA
LITERATUR ALDIZKARIA **uzturpe ikastola**
25. aldea 2014-2015 ikasturtea







Garaes
Joures




ART - GARA
SITHOTZEM DUGU



Haves Esavica

Doimiak: Maysu Ruanda
Batetikar Korrozka
Españian behera

BERTSOAK



BARI

Zerbaitetara gatoz
gu ikastolara
ikastera, lanera,
goizero gelara..
Liburez gain beste
ikasgairik bada,
horren adibide bat
dugu ARI GARA,
ta mende laurdenera
iritsi da jada.

Ikastolako lanei
bota begirada
ipuin, marrazki, idazlan..
denetatik bada
ikasleen lanaren
gertuko islada,
hogeita bost urtean
hortan ARI GARA
eta bide hortatik
jarraitu behar da.

BIXENTE GOROSTIDI

Bixente Gorostidi

A handwritten signature in black ink, consisting of stylized, overlapping loops and lines.

Amaren egunerako egindako bertsoak

Doinuak: Espainian behera, Batetikan korrozka...

Bi mila ta hiruan
neon jaiotzeko
hamaika urte ditut
nik dagoeneko
denbora guzti honetan
zutaz pentsatzeko
nire bihotza daukat
beti zuretzako
asko maite zaitut ta
ama eskerrik asko.

Naizen
Barriola
Ane
Bengoetxea
Eneritz
Jauresi


Orain enteratu naiz
egiten dezuna
niregatik sufritu
eta egin lana
arropak txukundu ta
preparatu jana
iten dezun guztia
niregatik dana
onena zara eta
mila esker ama.

Manex Rubinos
Emekete Anzuegi

Maiatzaren hiruan
da zure eguna
ta omenaldi bat da
merezi duzuna
lanean ta etxean
jo ta ke eguna
zu ama izatea
a ze zorte ona
mila esker ta muxu
amatxo kuttuna.



OIHAN ABURRERABALA



Tokirik gustukona
 amaren magala
 hotzez nagoenean
 jartzen dit mantala
 etxen txokolatea
 jatean igoala
 beti esaten digu
 altxorrak gerala
 inork ez gaitu zaintzen
 gu amak bezala.



Harriet
 Alex
 Josu Izaguirte

Ama zuk badakizu
 maite zaitudana
 niregatik askotan
 egin duzu lana
 ni ere batzuetan
 haserretzen naiz ta
 barkatu amatxo maite
 tori besarkada

onena zera eta mila esker ama.
 Lide Goikobenea
 June Parina

Kaixo ama zer moduz
 gaur da zure eguna
 zu zera omenaldi bat
 merezi duena
 lanean eta etxean
 nolako kemena
 zu nire ama izatea
 a ze zorte ona
 zu zara mundu osoko
 amarik onena.

Harriet
 ALEX
 Alex
 Beñat



June

Alperrikako lanak

Doinuak: Espainian behera, Batetikan korrozka...

Matematikan behintzat
ez gabiltz ederki
ta azterketa ez iteko
ditugu ehun aitzaki
kopiatu beharkoioiu
ondokoren bati
mateko liburua
ikasteko ireki
saiatu arren gaizki
irteten zait beti.

Jonm

Aimar Ugaste
Kortez



Saskibaloian beti
jaurti eta jaurti
saskira botatzeko
begiak ireki
baina guretzat dago
saskia urruti
beheran egongo balitz
guretzat hobeki
saiatu arren gaizki
irteten zait beti.

Jone, Naroa
Elena, Irati

Eskola etorri nintzen
txiki txikitati
egunero egin naiz
goizean goiz jeki
gainera eskola dago
etxetik urruti
berandu etortzeko
hori dut aitzakia
saiatu arren gaizki
irteten zait beti.

Maten hamarretikan
beti naiz urruti
laguntza eskatuaz
ondokoren bati
azkeneko kontrolen
ez neon ederki
nota ona ateratzeko
hori ez da aitzakia
saiatu arren gaizki
irteten zait beti.

Maria eta Jone



Doinua ikasten deu
aurrena ederki
errimak bilatzene
ia edonork daki
gure maixu Bixentek
oso ona aurki
baina guri ateratzen
zaigu beti gaizki
saiatu arren gaizki
irteten zait beti.

Nik lagun bati in nion
txuleta bikaina
beak ikasteko behintzat
ez baitauka grina
nire letra ordea
ez da oso fina
ordenagailurik ez
arkatzaz egina
ea ikusten duen
nire ahalegina.

Aimar Ugarte Mendia
Jon Magrdomo



OIHANE NOGALES



Bizitzako oroitzapenak

Doinuai: Kantore berri xarmant batzuek, Pello Joxepe, O baseritxo, Ari naizela ari naizela....

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

Torre la mora kanpineia jun ta

bost lagun ezagututa

Joan, Erik eta Mark bihurrik

mutilen taldea hoi da

neskena berriz gutxigo dira

eta biak dira Marta

denok batera ibiltzen ginen

alde batetik bestera. Manex Pabitos

Hamaika urte bete nitun ta

oparik ez neuzkan asko

nire amonak esku-pilota

seguru seitun hautsiko

anaiak niri kanika batzuk

hautsita zeuden biharko

koaderno bat oparitu ta

nik beste zerbait nahiago.



Behin baten egun pasa joan ginen
gu eguzkia hartzera.

Binarosen oporretan geunden

familiakin ordea

helatu bat erosi ziaten

raroa zun zaporea

niretzat egun hura izan zen

oso egun dotorea.

Txikia nintzeneko etxean

sofan hartu non ostia

orduan amak susto earra

hartu ta hil ein zen ia

oreka ezin nuen mantendu

eta beti eroria

egun huraxe benetan izan

zen oso egun berezia. Maren Barriola

Oraintxe kontatuko dizuet

nik bizitzako ostia

bizikletako zartako hori

da niretzat berezia


txiribueltaka erori nintzen

jokatu nuen bizia


biziko esprin handina egin nun


ta geratu eroria. Josu Izagirre

HODEI BERMUDEZ URKIZAR



POEMAK






FUTBOLEAN JOLASTEN

BAT, BI, HIRU, LAU
 GOLA SARTU TA GOZATU
 FUTBOLEAN ARI GARA
 IRABAZI ALA GALDU
 BERDIN DIO ZER EGIN
 BAINO ONDO PASATU.

JOLASEAN

EGUZKIA OSO ARGITSUA
 ETA ALAIA
 ILARGIA KOPETILUNA
 ETA BATERE ALAIA EZ
 BAINA GU BETI IRRIBARTSU
 ETA ZORION ZALE.



AMZA

OLAIA.G

Unax Zubiria





NEGUA

Udazkena bukatu
 loreak galdu
 urtea aldatu
 gabonak ospatu
 elurretan jolastu
 konturatzera udaberria
 gerturatu.

Oier Irastorza

UDABERRIA

Neguko atea itxi eta ireki udaberria
 zuhaitzak hostoz, landareak lorez,
 txoriak kantuz, hau irria!
 baratzetan belar txarrak kenduz,
 iritsiko da,
 fruitua bildu eta jateko garaia.
 Hau bai momentu alai.

Nireia Baviola





EGUZKIA ETA LAINOAK

Eguzkia datorrenean
zoriona dakar
lainoak datozenean
zoritxarra dakar
biak datozenean
maitasuna dakarte.

NEGUA

Negua datorrenean
umeak poz pozik
negua doanean
umeak tristerik

URTAROAK

Udaberrian beti
loreak poz pozik
udaran ume guztiak
pistin an igeri
udazken guztietan
ostoa k lurrean
neguan beti dago
elurra goian behean.

UDABERRIA

Urtaro guztietan
politena hau da
urtaro itsusina
udazkena bai da.

Negua


Negu hori, elur zuri.
Gustatzen zaio hari.
Negua bukatzen da
eguzkia iristean.
Denok triste
jartzen gara
elurra bukatzean.

Aita etortzean

Aita etortzean
zoriona egongo da.
Ama etortzean
poza egongo da.
Eta biak etortzean
animatu ezkontzara!

Jlane Eskitxabel

Urko Egues



IKASTOLAKO IRAKASLEAK

2015
ARIGARA

ALEX ★
AIZPURU

Arantxaren umorea,

Milaren matematikak,

Axunen gaztelania,

Felixen hika,

Aneren inglesa,

kontuz hizkuntzak datoz eta!

Haizea Telleria

EGUZKIA

Udaberriko eguzkia
bai ederra;
mendian tximeletak, loreak...
Zuhaitzetan loreak sortzen,
denak jolasten gara
belarretan,
poz-pozik loreak biltzen.

Nagore
Imaz



KATUA BANINTZ

Ni katua banintz,
teilatuetara igoko nintzake.
Teiatuetara igoko banintz,
miau egingo nuke.
Miau egingo banu,
lagun bat etorriko litzake.
Lagun bat etortzen balitz,
jolastu egingo genuke.
Jolastu egingo bagenu,
ondo pasako genuke.


Nahia Murillo

ZOOAN ANIMALIAK

Zooan animaliak,
animaliak kaiolan,
kaiolan janaria,
janaria almazenean,
almazenean langileak,
langileak jendea,
jendea zu zara!



Oihane Nogales



Mobilan on eta txarrak:

Mobila bai aberatsa
guretzako urratsa
baina badago zerbait
barruko usain bat
guk Internet daukagu
eta horrek zoriontsu egiten gaitu
ezin sinistu ze potentzia daukan
planeta inguratua zeukan
eta orain munduak erabiltzen du.

Baina zerbait dauka
guretzako txarra
bizitasunaren bidez
lagunekin egon ordez
guk saiatu behar dugu apartatzen
edo berak jarriko gaitu menperatzen
horretarako ikasi behar dugu naturarekin
komunikatzen
saiatu zuek ere egiten.

Ibaiti Etxebarria


UDARA

Udara eguraldi ona
igerilekura eta hondartza
lagunekin jolasten
oporretan lasai
nire urteak ospatu
opariak irekita
oporrak bukatu ondoren
berriro ikastolara
etorri behar dugu.

Irati olano



Nire Poema



Maisuak esan zidan
poema idazteko
ta hasi naiz pentsatzen,
zein gai aukeratuko?
pentsatu ta pentsatu,
etzait aterako
Amari esan diot
aizu, lagunduko?
baina berak esan dit
nik neuk egiteko
Baina horregatik
Ez naiz orain errendituko


Asko saiatuko naiz
behin eta berriro
Asko saiatzen denak
bete baitu lortuko
Nahiz eta ez izan ona
Poema hau niretzako,
onena izango da
saiatu naizelako
ta nire bihotzean
nola ez du irabaziko?
nik beti poema hau
izango dut gogoko

NIRE LAGUN KUTTUNA

Nire laguna egunero etortzen zait bisitan
ez du goiz bat ere galtzen, etortzen da guztietan
etorri orduko mundu guztia jartzen du argitan
zoriontsu dagoenean denak izerditan
dibertigarria eta alaia da egitan
gure artean jolasten gara sarritan
lagun onak gara, ez al dago bistan?
lehenik harrapaketan, ezetz harrapatu?
baina beti gauza bera egiten du
orain badakit nola harrapatu, ez al da jabetu?
ekialdetik mendebaldera joan eta ezkutatu
baina gero gauean ezin bilatu,
nire laguna nor den asmatu
ikus nahi baduzu zerura begiratu.

June 7

Aimar Ugarte Mendia




LARROSA

Zu zara lorea,
zu zara ederrena,
baita handiena ere.

Txikitan ikusi zintudan,
eta zu zara,
nire lorarik gustokoena.

Zu izango zara betirako
nire larrosa,
usain goxokoa,
kolore gorri,
hori, laranja
zuri edo arrosakoa.

ARI gara



Hodei

Yáñez

UDAZKENA

Iritsi da udazkena
ume guztien pena,
baina badu gauza ederrik,
zelai eta basoak
gorritzen da dena.

Zuhaitzak bilutzik
eta ni hostoekin dantzan.
Lurrean intxaur, gaztain,
ontto eta ezkur ugari,
orein eta basurdeen
bazkari.

García Larbaka



Eneko Garmendio


ILARGIA

Egunez ez zaude
baina gauzez bai
Baina batzuetan beterik
eta bestetan hutsik
baloi baten itxura duzu
baloi distiratsua
gure bidea argitzen duzu
zure argiarekin
ai ilargia ilargia
zu gabe ez dago argirik


Ekain tellena



unak
zubiria



ITSASOA
 Itsasoa zein polita,
 urdina eta txuria.
 Arraiak igerian eta
 baleak ura botatzen,
 karramarrok
 krak krak egiten,
 marrazo hortzaundiak
 arrai txikiak jaten,
 eta bitartean pertsonak,
 itsasontzian hauek harrapatzen.



4 urtaroak

Neguan,
 elurra mara-mara,
 hotza handia,
 jendea eta animaliak
 etxe barruan,
 su ondoan,
 bero-bero.

Udaberrian,
 hostoak berde-berde,
 marrubiak gorri-gorri,
 gereziak ere bai,
 eguraldi zoragarri.

Udan,
 bero handia,
 pistinan eta hondartzan
 bainatzen gara,
 oporrez gozatuz.

Udazkenean,
 hostoak erori,
 lurra gorri- gorri,
 eguraldi xarmagarri.

Xabat. Murrigorri

ADUR PAZ



oler eategin



Izarrak

Izarrak dira zeruko gudari
eta ilargia dute beraien zaindari.

Gertutik arriskutsu,
urrundik hunkigarri,
zerua argitzen digute.
gure bizitzarako
bidea erakutsiz.

IDEIARIK GABE

Olerki bat egiteko esan ziguten
nik azkar baietz
baina ez nuen pentsatu
egongo nintzela
ideiarik gabe
azkenean ideiarik gabeko ideiarekin
egin nuen olerkia nahi gabe
konturatu baino lehen
hasi nintzen idazten
olerkiak idazterakoan
arkatza eta ezeztekoa
baina olerki hau
desberdina zen
lumak bakarrik idazten zuen
beldurra sentitzen hasi nintzen
ume guztiak beren ideiarekin
eta ni ideiarik gabe.

Unai Zubeltza



Unai Zubeltza

Maria Gurrutxaga

Lurra

Gure bihotzeko lurra
zu zara gurea
gure amona bezala
zaude gure gainean
maite zaitugu kristona
zu ilaran hirugarrena
eta besteak lehenak
guretzako zu zara
lehenengo planeta

Elene Zubillaga

ARRATC



UDABERRIA

Udaberria onena da
 lau urtarotik onena
 loreak jaio
 zelai guztiak lorez ikusi
 zuaitz guztiak ostoeekin ikusi
 lagunekin egon
 baina okerrena
 ikastolara joan bear
 ze pereza.

Aiora
dano

DATE



NO

ZERUA

Zerua urdin

Lainoak txuri.

Biak osatzen duten koloreak

Urdin argia badirudi.

Batzutan beltza

Bestetan grixia

Beti alai eta poza


Urdinak beste koloreekin polita eta jolasa.

Oso polita da koloreekin jolastea.

Urdina, beltza, grixia, gorria, gorri-laranja kolore horiek

zeruak ditu.

Uxue
Beguiritain



OIER OTERMIN ALEGRE

MUSIKA

Musikaren soinua zainetan

Gitarraren akordeak bihotzean

txirularen zuloak sudurrean

eta zure ahotsa nire pentsamenduetan

Bizitza pentagrama bat da

lehenik jaiotzen gara

bigarrenik jolasten gara

hirugarrenik maitemintzen gara




laugarrenik gurasoak egiten gara

eta bosgarrenik itzaltzen gara


KUBAN U B E D A




AITANA MANTEREA



Olerkia



Bera da hobena
ta izena du Vegetta
zenbakia du 777
eta maincraftekin du aski
gta 5n ere ibiltzen da
baina minecraften da hobea.



CHRISTIAN


Bera Willy
Vegettaren laguna
konektatzen dira
ta hobenak dira
gta 5 ibiltzen dira
eta biok batera joaten dira
misiok egin eta
jendea hiltzera.

bera da rubius
ta dago lokoa
egiten ditu bromak
eta ez dira oso onak

ILUNTASUNA

Don maysedome

Maria



iluntasuna zer den
nik ondo ez dakit
baina ahala ta guztiz
beldurra ematen dit
berarekin banago
beldurrez nago
ama beldurra dut.

Don urrestarazu

ZENTZUMENAK

1,2,3,4,5

zentzumenak
beharrezkoak,
bata, dastamena
ondo murtzikatzeko,

bigarrena entzumena
ondo entzuteko,

hirugarrena usaimena
natura ondo usaintzeko,

laugarrena ikusmena dena
ondo ikusteko,

eta azkenik bosgarrena, ukimena,
gauza garrantzitsuak ukitzeko.

oso garrantzitsuak dira denak
ez da bat bestea baino hobea
edo txaragoa, denak dira
zaindu behar ditugun zentzumenak,
bestela gure gorputzak ezingo du aurrera
jarraitu eta hil ere egingo ginatke
horregatik zaindu behar dugu gure
gorputza



Garazi Jauripi Dmas



D NBORA

EGUNEO ORDUA
ORDUKO MINUTUA
MINUTUKO SEGUNDOA
ZERBAIT HARRIGARRIA
GERTATZEN DA
BAKOITZEAN.
EGUNEO ORDUA
ORDUKO MINUTUA
MINUTUKO SEGUNDOA
A ZE LILURAGARRIA
DEN MOMENTUA.
EGUNEO ORDUA
ORDUKO MINUTUA
MINUTUKO SEGUNDOA
GORA GURE MUNDUAI

Erant Mujika dopteyi



AMATXO

AMA, ATZO PATIOAN
MUNDUKO
LORERIK-POLITENA IKUSI NUEN
LAGUNIK ONENA ZEN ETA
BERAREKIN JOLASTEN
NINTZEN,
BIOTZ ONEKOA ZEN,
JAKINTSUA,
JATORRA, DOTOREA
LORERIK EZ ZEN EXISTITZEN
MUNDUAN
LORE HOBERIK
AI BARKATU GAUZA BAT
AHAZTU ZAIT
ALAIA ZEN,
BAINA NIREKIN HASERRETZEN
ZEN BATZUETAN,
DENAK BEZALA, NORMALA ZEN
ETA DENA LABURTUTA
ZU BEZALA, AMATXO.



Kabi Mikiñan Cabiro

FAMILIA

Une onenetan, txarrenetan
alaletan, tristeetan
graziosoetan, grazirik gabekoetan
politēnetan, itsusienetan
arriskutsuetan,
lasaietan, mugituētan...
nahiz eta zaharra edo gaztea izan.
Anaia eta arreba bakarrak zu defenditzeko
Ama eta aita bakarrak zu zaintzeko.
Aitona eta amona bakarrak zu goxatzeko
beti egongo da zure ondoan zure familia.

Garesi Mikiñan Landa

MIREIA BARRIOLA




Ostadar laguna

Ostadarra aleritzen, bere barneko
koloreak erakusten, zazpi kolore baitira,
arrosa, urdina, morea, horia, berdea, gorria eta laranja.
Ostadarrek alaitzen zaitu naiz eta kazkabarra egin
batzuetan argi eta besteetan ilun naiz eta beti
ez egon desberdin baina beti alaitzeko prest egon dadin
prest egon dadin naiz eta triste dadin. Euria egin
triste dadin, eguzkia egin pozik dadin.

Tune Txantola Landa

IPUINAK



DINOSAUROEN GARAIRA GOAZ !!!!

Egun batean Ander izeneko mutil bat, bere etxean jolasten ari zen dinosauroekin, asko gustatzen zitzaion berauekin jolastea. Zortzi urte zituen eta aho txikia zuen, baina aho txikia izanik, asko hitz egiten zuen. Ile marroixka eta sudur txikia zuen, nahiz eta bihurria izan oso jatorra eta alaia zen. Aurpegian ez zuen pekarik, ez zen hain altua eta ez zen hain morena baina zuria ere ez zen. Bere arrebak, Leire izena zuen eta 10 urte zituen; asko laguntzen zion Anderri eta oso alaia zen, sudur txikia, ile marroia eta begi marroixkak zituen eta ez zen Ander bezain altua, baina bera morena zen eta oso jatorra eta langilea.

Egun hartan bertan, euria goitik behera ari zuen geratu gabe. Aitonak gela zahar batera eraman zituen Ander eta Leire. Beraien aitonak Joxe Mari izena zuen eta 72 urte zituen. Joxe Mariri historiako gauzak gustatzen zitzaizkion. Bere belarriak handiak ziren, aho txikia eta ile gutxi zuen, baina geratzen zitzaion ilea grisa zen, berak bizar luzea zuen, gutxi gorabehera lepo erdiraino. Gela horretan zapi batekin esatalita gauza bat zegoen eta Ander eta Leireri jakin-mina sartu zitzaien zer zegoen ikusteko:

- Aitona Joxe Mari, zer dago zapi horren barruan?- esan zion Leirek.
- Agian dinosauro handi bat dago!- esan zuen atzetik Anderrek.
- Ez Ander ez, ez dago dinosaurorik, baina bene-benetako dinosauroak ikusi ahal izango dituzu- esan zuen barrez Joxe Marik.

-Baina noiz esango diguzu zer den?- esan zuen Leirek jakin-minez.

-Ba...zera da- Aitonak

-Zer!- moztu zien Anderrek eta Leirek batera.

-Denboraren makina bat da- Aitonak

-Zer da... DENBORAREN MAKINA?- galdetu zuen Anderrek aurpegi txarra jarriaz.

-Denboraz atzera egin dezakezu makina horrekin, baita dinosauroen garaira ere- Aitonak

Une horretan Ander saltoka eta builaka hasi zen:

-Aupa , biba , iuju, dinosauroen garaira!- Ander

Denboraren makina Joxe Mariri bere birraitonak oparitu zion txikia zela, 9 urte izango zituen garai hartan. Ez zuen erabili "garai hartan nire lagunak eta ni jolasean ibiltzen ginen" esaten zuen aitonak. Baina aitonari denboraren makinan bidaiatzeko gogoia sartu zitzaion. Azkenean dinosauroen garaira joatea erabaki zuten. Denboraren makinak, barrutik, botoi pila bat zituen eta kanpoko kolorea grisa zen, txikia ere bazen.

-Prest!- esan zuen aitonak builaka.

-Bai!- erantzun zien Anderrek eta Leirek.

-Goazen!- aitonak.

ZZZZZZIIIIIOOOOOOUUUUUSSSSSSSSSSSSSS!!

Eta bat batean denboraren makina geratu egin zen. Leirek atea ireki eta...

-Uau!, dinosauroen garaian gaudel!- esan zuen.

-Ze beroa!- atzetik Anderrek.

Mundu hori oso arraroa zen, zuhaitz pila bat zeuden eta... dinosauroek hitz egiten zuten, lurra horia zen eta sumendi asko zeuden. Momentu batean dinosauro lepo luze bat hurbildu eta esan zien:

-Nongoak zarete? Zer egiten duzue hemen?-dinosaurioak.

-Gu Euskal Herrikoak gara eta mundua ezagutzera etorri gara-Anderrek

-Ba...ongi etorri gure mundura,nire izena Dino da eta zuena?

-Hango gizon horrek Joxe Mari izena du,mutil honek Ander eta nik Leire.

Dinosaurioak begi urdinak zituen eta berdea zen,jatorra eta alaia.Dinok bere familia erakutsi zien eta han bizitzera gonbidatu.Beraiek denboraren makina barruan egin zuten lo.Hurrengo egunean esan zien kontuz ibiltzeko zuloekin,asko zeudela eta,baina Joxe Marik esan zion:

-Baina ,ez al zarete kontuz ibiltzen beste dinosaurioekin?

-Bai zera,denok lagunak gara eta elkarri laguntzen diogu-esan zion Dinok Joxeri.

Gero esan zien beraiek lana egin behar zutela eta ea nahi zuten bakarrik ezagutu mundua. Anderrek mundua bakarrik nahi eta bakarrik abiatu ziren bidean aurrera. Aurrera eta aurrera jarraitu ondoren konturatu ziren galduta zeudela eta etxera joan behar zuten. Hiru bide zituzten eta erdikotik abiatu ziren. Bidean irristatu, lurrera erortzen ziren eta bustita zegoenez, ezin zuten korrika egin, berriro hasierako lekura iritsi ziren. Oraingoan ezkerreko bidea hartu zuten eta han dena arantzaz josita zegoen -"hemen bertan ahuntzak egon beharko lirateke dena garbitzeko" esaten zuen aitonak.

Bat batean Ander erori egin zen eta min handia hartu zuen, azkenean hasierako lekura iritsi ziren. Oraingoan eskuineko bidea hartu zuten. Hiru ordu behar izan zituzten leku horretatik ateratzen, azkenean ez zuten mundu bitxi hori ezagutu, gainera bustita eta arantzak zituzten leku guztietan. Gero Dino eta haren familia agurtu eta han joan ziren etxera.

-Azkenean etxera!-esan zuen Leirek nekatuta

Aitona Joxek hori entzutean barrez hasi zen.

ZZZZZIIIIIIIOOOOOUUUUUUUSSSSSSSSSSSS!!!

Etxera iritsi zirenean arropak aldatu eta (3 kaxa gutxienez) gastatu zituzten tiritekin; Gurasoak heldu zirenean:

-Ai ama! baina baina zer da hau-esan zuten biek batera ezin sinetsirik.

Eta denek barrez bukatu zuten eguna.

Garari Jauregi Imas

MARKOS YOUTUBE ZALEA

Bazen behin Markos izeneko mutil bat, 11 urte zituen, Cataluñan bizitzen. Markosek ile beltza zuen, itzala bezain iluna, begi berde handiak, belarra bezalakoak, ezpain gorriak, odola bezalakoak, sudur luzea, Pinotxo bezalakoak eta ipotxiak bezain txikia zen.

Markos beti Youtubeko bideoak ikusten zegoen, bere "Youtuber" gustukoena Josemi 56 izaneko bat zen. Asko gustatzen zitzaizkion bere bideoak, egunero ikusten zituen, batzuetan bideo bakoitza 4 aldiz ikusten zuen!

Halako egun batean bere amak Youtube ikusi gabe utzi zuen hilabete batez. Markosek erabaki zuen lo egitea hilabete batez.

Hilabete bat pasa ondoren...

Markos esnatu egin zen eta Youtuben kanal bat egitea erabaki zuen, Markos56 izena zuen bere kanalak. Bideo asko egin zituen, xbox-eko jokuak, tablet-akoak, wii-koak, psp-koak...

Denbora luzez jarraitu zuen bideoak egiten, 999 jarraitzaile zituen eta 1000 jarraitzailera iritsi nahi zuen bere espeziala egiteko, azkenean jarraitzaile bat lortu zuen eta zein zen jarraitzaile hori ikusi zuenean harrিতuta geratu zen.

Jarraitzaile hori zen.....Josemi56! Hasieran mutu geratu zen Markos, uste zuen norbaít izango zela izen berdinarekin, eta bere kanala bisitatu ondoren ikusi zuen Josemi56 hori ez zela.....beste pertsona bat izen berdinarekin, benetakoa zen.


Hurrengo egunean espeziala hasi zen egiten, hartan beraren joko guztietan jolastu zen, gutxi gora behera 11 ordukoa zen. Editatzen zegoenean bideoa, bat-batean, ordenagailuaren barrura sartu zen. Mundu horretan munduko Youtuber guztiak zeuden. Markosek beste Youtuber batzuen artean Josemi56 aurkitu zuen, Markosek esan zion bere mireslea zela eta Josemi56-ek Markosi kamiseta firmatu zion.

2 Egun pasa ondoren...

Youtuberrak mundu hartaz nazkatu ziren eta ateratzea erabaki zuten, baina ate hartatik ateratzeko Youtuber txapelketa irabazi behar zen, Youtubeko erregearen aurka. Youtuberrak, irabaztera joan beharrean erregea entretenitzea joan ziren. Bideo bat egin zuten, 2 egun irauten zuen bideoak, erregea ez aspertzeko. Erregeak bideoa ikusten zuen bitartean Youtuberrak atetikan atera ziren korrika.

Etxera iritsi ziren eta bideoak egiten jarraitu zuten.

Erriant Muzika doxategi



ARRIGARRA

NIRE ZUHAITZA ETA NI

Ni jaio nintzen egunean nire gurasoek zuhaitz bat landatu zuten nire etxeko lorategian, ordutik nire bizitza osoa berarekin pasadut, momenturik txarrenetan bakarrik sentitzen nintzenean bera zen nire tristuraren malkoak lehortzen zituen zapia, eta pozik nengoenean bera zen nirekin jolasten zuen laguna, baina ez edozein lagun baizik eta inoiz bakarrik utziko ez zaituen laguna, edo eta beti zure alboan egongo den laguna, momentu txarrenetan eta momentu onenetan beti zurekin joango dena. Halaxe zen nire lagun zuhaitza, lau urte nituela izen bat jartzea erabaki nuen, baina ez zitzaidan izenik bururatzen, orduan nire gurasoei galdetu nien ze izen jarriko nien eta beraiek esan zidaten Aritz jartzeko, nik orduan ez nekien zuhaitz ura haritza zela, ah baino jarraitu baino lehen ahaztu egin zait nire izena aipatzea, Lore da, bueno non gindoazen... Nire gurasoek Aritz oso ondo tratatzen zuten, egunero ura eman, erortzen ziren hostoak jaso... batzuetan pentsatzen nuen Aritzi niri baino gehiago maite zutela.

6 urte nituela konturatu nintzen Aritz eta ni anaiak bezala ginela, batzuetan gura liskarrak genituen baino gero dena konpondu eta berriro oso ondo eramaten ginen. Egun batean ikastolara mutiko berri bat etorri zen, Amets izena zuena, berarekin oso ondo eramaten nintzen, eta pixkanaka pixkanaka lagun minak egin ginen eta Aritzi kasurik ez egiten hasi nintzen, esan daiteke bera ahazten ari nintzela. Baina nire gurasoak ez, ez ziren inoiz ahazten zuhaitzaz beti bezala jarraitzen zuten, bera egunero bezala zaintzen.

Udarako oporrak etorri ziren, Ametsek oporretara joan behar zuen eta orduan Aritzekin berriro ondo eramaten hasi nintzen, beraretaz gogoratzen modu batera esateko. Amets oporretatik itzultzean erabaki nuen berari kontatzea zuhaitz espezial bat nuela. Ez nengoen seguru kontatu bai ala ez txorotzat hartuko ninduela pentsatu nuen, baina nire buruari esan nion " nire laguna bada ni bezalakoa naizen errespetatuko nau " eta kontatu nionean ala izan zen, ez zen besteek bezala. Berak ulertu egiten ninduen, orduan egun batean erabaki nuen berari nolabait "aurkezpena egitea eta horrela izan zen: Nik esan nuen " Amets hau Aritz da, Aritz hau Amets da", eta ematen

zuen lehenengo momentutik oso ondo elkar ezagutzen zutela, eta horrela izan zen.

Nik ez nuen sinisten, nire bizitza perfektua zen!, nire buruari esaten nion "Zerbait txarra gertatuko da", eta horrelaxe zen nire gurasoen eta nire arteko harremana txikitzen joan zen, eta nire gurasoek Aritzentzat bakarrik zeuzkaten begiak baina nik, hori ez nuen ulertzen.

7 urte nituela nire anai txikia jaio zen, eta nire gurasoek Aritz deitu zioten. Hilabete bat pasa ondoren nire gurasoak Aritz zuhaitzaz ahazten hasi ziren, eta Aritz nire anai txikia eta niri kasu gehiago egiten. Bi hilabeteren ondoren nire gurasoek erabaki zuten etxe hartan lauontzat ez zegoela tokirik, etxe handiago bat behar genuela, orduan beste etxe batera joan ziren. Joan ginen etxea askoz hobea zela pentsatzen nuen, toki gehiago zegoen, gela gehiago, lorategi handiagoa... Baina nire gurasoak ez ziren konturatu lorategi handi hartan zerbait falta zela, Aritz zuhaitza. Nire gurasoak ez ziren konturatu ere egin, orain begiak Aritz nire anai txikiarentzat bakarrik zituztelako. Ni izan nintzen zuhaitzaren falta sumatu zuen bakarra, jaio nintzenetik beraren alboan egon nintzelako. Hori bai ez nintzen segituan ahaztu berareta, nahikoa kostatu zitzaidan, baina oraindik ere ez dut guztiz ahaztu. Oso zaila da zuhaitz zintzo hura ahaztea, bueno niretzat behintzat, esan dizuedan bezala nire gurasoek dagoeneko ahaztua zuten. Horrela ematen zuen Aritz zuhaitzaren hutsunea, Aritz nire anai txikiak betetzen zuela.

Aritz nire anai txikiak 4 urte gin zituenean, hau da nik 10 urte nituenean, niretzat ere zuhaitzaren hutsunea nire anaiak bete zuen baina ez erabat. Nire anai txikia eta nire arteko harremana, Aritz zuhaitzarena eta nirearenaren, antzekoa bihurtu zen, gure liskarrak edukitzen genituen baina azkenean dena konpondu eta oso ondo eramaten ginen. Esan daiteke lehen Aritz zuhaitzarekin imajinatzen nituen liskarrak (imajinatu esaten dut zuhaitza berez ez zelako inoiz mugitzen ez ezer esaten) eta nire anai txikiaren arteko liskarrak antzekoak zirela, esan daiteke ere bai nik imajinatzen nuen anai hura orain banuela. Baina hala ere haserre nengoenean edo bakarrik sentitzen nintzenean, nire pena guztiak kuxinari esaten nizkiola,

Imajinatzen nuen kuxin hura Aritz nire anai zuhaitza zela. Egia esan ez zen denbora asko ikusten ez nuela zeren joan ginen etxe berria eta nire etxe zaharra nahiko gertu zeuden, nire etxe zaharra parketik nahiko gertu zegoen, eta orduan ia egunero nire gurasoei esaten nien parkera nindoala nire anai txikiarekin berak ondo pasatzeko, baina ez zen horrela, egia esan niregatik joaten nintzen parkera (bueno nire anai txikia ondo pasatzen ikustea ere ez zegoen gaizki), zuhaitza ikusten zen parean banku bat zegoen eta han esertzen nintzen parkera joaten nintzen guztietan. Nire anai txikiari erabaki nuen zuhaitzarena ez kontatzea oso txikia zela eta ez zuen ulertuko.



Egun batean parkeko banku hartan eserita nengoela, lorategian ume bat jolasten entzun nuen, bankuaren gainean zutik jarri nintzen zein zen ikusteko (lorategian barrera baten antzekoa zegoen eta ez nintzen barrukoa ikustera iristen) bueno nire eskolako neska bat zen, Maitane izena zuena ez nuen oso ondo ezagutzen nahiz eta gela berdinean egon. Gelan 30 gara eta ni 13rekin eramaten naiz hobekien.

Gelara iritsi ginenean momentu batean erabaki nuen Maitaneren lagun egitea, baino ondoren hobetu pentsatu eta erabaki nuen Aritz zuhaizterengatik ez nuela Maitaneren lagun izan behar, ez zitzaidan ondo iruditzen zeren lagunak maite dituzulako eduki behar dituzu ez zure zuhaitz anaiarekin egon nahi duzulako, orduan erabaki nuen hori ez egitea, Aritz zuhaitzarekin hitz egiten (nire imajinazioan zeren zuhaitzak ez du hitz egiten) parkean, beti bezala bere pareko bankuan eseri era hitz egin, edo eta gauean kuxinarekin hitz egin.

Egun batean ikastolan esan zuten eskulanetan marrazki bat ekarri behar zela, eta ni etxetik koaderno eta arkatza hartu parkera joan, nire anai txikiarekin, eta Aritz zuhaitzari marrazten hasi nintzen, nire ustez nahiko ondo marrazten nuen eta ondo zer esaten dut oso oso oso ondo marraztu nuen zuhaitza, nire ustez inoiz egin dudan marrazkirik politena egin nuen, eta inoiz eduki ditudan gogo gehienarekin. Margotzen nengoela derrepentean erlojua begiratu eta ikusi nuen berandu egin zela, orduan nire anaia hartu eta etxera abiatu nintzen. Etxera iristean gau osoa pasa nuen zuhaitza gero eta politagoa egiten, hain nekatuta nengoen hurrengo egunean nire mahaian esnatu

nintzela burua marrazkiaren gainean jarrita. Gogoratzen naiz marrazki harekin nire lehenengo hamarra jaso nuela, nik beti zortziak eta zazpiak jasotzen nituen, eta batzuetan bederatziak, baina hamarrak gogoratzen naiz nire gurasoak oso pozik jarri zirela egun hartan, egun artatik aurrera nire nota guztiak bederatziak eta hamarrak izan ziren.

Orain 14 urte ditut eta espero dut handia egitean nire bizitzako egun haiek ez inoiz ahaztea, orain historia hau leku seguru batera eramango dut, Aritz zuhaitzaren ondoan landatuko dut, eta espero dut urte batzuk barru norbaitek paper hauek aurkitzea niretzat paper soil batzuk baino gehiago direla, eta Aritzekin nik bizi ditudan historia guztiak bizitzea.



June 7

ETXE SORGINDUA

Bazen behin Mari izeneko andre bat, mendian bizi zena. Argala zen,altua eta 50 urte zituen.


Egun batean trumoia ari zuen,Mari etxean zegoen,eta tximista batek bere etxean jo ,eta etxea Mari eta guzti sorgindu zuen.

Egun hartatik aurrera Marik bere etxe aurretik pasatzen ziren animalia edo pertsona guztiak bahitu egiten zituen, eta ondoren lapikoan sartu eta jan egiten zituen.

Herritarrek pentsatu zuten neurri bat hartu behar zutela. Egun batean Mariri sorginaren eragina kendu zitzaion, eta orduan esan zuen Marik:

-Zer egin dut !

Orduan herritarrek ertzaintzari deitu zioten. Ertzainak Mariren etxera joan ziren,Marik esaten zuen ez zuela ezer egin, baina atxilotu egin zuten ertzainek. Eta herritarrak pozik bizi ziren Mari izan ezik.



Uxue Zubiria

OPERAZIO BEREZIETAKO MISIOA

1. EGUNA (Maliko espainiarren kuartelean)

- Mezu bat iritsi zait koronela-esan zuen mezu jasotzaileak ozen.
- Zer jartzen du mezuan?-esan zuen koronelak.
- Terrorista batzuk Euskadira joan dira eta bi ume bahitu dituzte eta orain Bamako hiritik hiru kilometrora dauden adobezko etxeetara kamioi bat eta bi kotxe joaten ikusi ziren azken aldiz.

Uste dugu "Indioren" gurasoak eta beraien laguntzaileak daudela gauza honen atzean, baina ezta oso segurua.-esan zuen mezu jasotzaileak ozen eta azkar.

-Oraindik arratsaldea da, baina orain azalduko diegu operazio bereziei eta bihar goizean goiz abiatuko dira hiru kotxe blindatuetan.-esan zuen koronelak pentsakor. Megafonoetatik Operazio berezietakoei deitu zieten planak egiteko gelara joateko. Bost segundotan denak han zeuden.

(Planak egiteko gelan)


Koronela esplikatzan hasi zen:

-Mizio honetako helburua bi anai salbatzea da. Terrorista batzuk Euskadira joan ziren eta Zarauzko musika plazan jolasten ari zirela terrorista batzuk azaldu ziren eta Tomboctoutik 2 kilometrotara dagoen tribu batzuetara joaten ikusi ziren. Uste dugu Indioren aita Rashit Ali, Mahaaiia Halamée eta zure familiaren lagunak daudela gauza honen atzean. Orain beranduegi da, baina bihar goizeko 5:00 tarako aterako zarete. Baina orain arratsaldeko 8:35ak dira, 9:00 tarako lo ikusi nahi zaituztet. Orain denak afaldu eta azkar ohera. Orain zuek batera afalduko duzue denak mahai batean lehenago afaltzeko.

(Jangelan)

- Zuk zer uste duzu Indio, zure gurasoen taldea dagoela gauza honen atzean?-esan zuen Frankok.

ARIGARA



Franko operazio berezietako frankotiratzailea zen. Bere ametsa munduko frankotiratzaile oberena izatea zen txikitatik bere aita bezala eta horregatik egunero entrenatzera joaten zen. Bera oso lasaia da eta pazientzia handikoa zen.

- Nik uste dut baietz. Ez dakizue ze gogoak ditudan misio hau egiteko.-esan zuen gogo handiz Indiok.

Indio operazio berezietako 2. kapitaina zen. Bera jaiotzez Bamakokoa (Mali) da. Bere aita Al Kaedakoen buruzagia zen, eta horregatik 12 urterekin Espainiara etorri zen oinez bakarrik. Bere ametsa Al Kaedakoekin erlazionatuta zegoen misio batera joatea zen.

- Nik ere gogo handiak ditut, lehenengo aldia dela ematen du.-esan zuen Kapok.

Kapo operazio berezietako kapitaina zen. Bera Kolonbian jaio zen. 14. urte zituela armategi batean AK 47 bat lapurtu zuen, eta bere amak armarekin ikusi zuenean etxetik bidali zuen betirako. Bere etxe ondoan portu bat zegoen. Bertatik barku azkar bat lapurtu eta Espainiara etorri zen. Beraiek 15 soldadu ziren. Beraien koronela etorri eta ohera bidali zituen.

2. EGUNA (Goizeko 4:30ak aldera)

- Esnatu! Esnatu! Denak jaiki!- esan zuen Koronelak oihuka.
Denak lo zeuden Kapo izan ezik. Gau guztia pentsatzen pasa zuen.

(4:55ak aldera armak eta guzti.kotxe blindatuetan sartzen)

- Soldaduak gara, eta misio batera goazi!- hasi ziren denak kantatzen.
- Beno, sartu kotxeetan!- esan zuen Koronelak.


Denak kotxeetan sartu ondoren kuarteletik atera ziren eta Terroristen adobezko etxeetara abiatu ziren.

(10 ordu geroago eguerdiko 15:00 aldera denak planeatzen)



- Beno, beraien kanpamentuetatik kilometro batera gaude. Nire ustez han barrura sartzea ezinezkoa da beraiek gu baino gehiago direlako, horregatik hobea da frankotiratzaileak multzotik bananduta dauden mutilak hil eta gero gutxiago direnean kanpamentuetan sartu, umeak hartu eta alde egitea.-esan zuen Kapok, eta denek ondo iruditu zitzaizkien eta denak bakoitzaren pastuetan jarri ziren.

Frankotiratzaileak 10 pertsonak hil zituen inork ikusi gabe, baina hamaikagarrena hiltzerakoan paretaren iskinean zegoen eta bera hil zuen, baina bere ondoan beste bat zegoen,

enteratu egin ziren eta gerra hasi zen. Sarrera handitik sartu ziren kotxeak, eta Denak hil ondoren umeak bilatzera joan ziren, baina ez zeuden inon, baina bat-batean kotxe bat ateratu zen garajetik eta alde egiten saiatu zen, baina frankotiratzailleak pneumatiko batean tiroa bota zion eta buelta eman zuen. Gero operazio berezietako guztiak kotxera joan ziren Indio eta Franko ezik. Indio Frankorengana joan zen eta esan zion hankan botatzeko tiroa gidaria Indioren aita zelako eta gidariaren ondokoa bere ama zelako. Orduan Indio beste guztiengana joan zen eta beraien semea ikusi zutenean bi umeak beraien semea eman zizkieten eta atxilotu egin zituzten bere ama eta aita. Azkenean bi umeak beraien etxeetara eraman zituzten eta dena ondo bukatu zen.



ASIER GORROTRAGA



Udara iritsiko ote da?

-Udara iritsi da!- esan zuen Lore izeneko neskatxa batek. Lorek 17 urte zituen, lan asko egin ondoren udara iristeko gogo handia zeukan. Bi anai- arreba zeuzkan bera baino zaharragoak eta horiek ere udara iristeko gogo handia zeukaten, opor batzuk hartzeko... Familia oso langileak ziren baina opor batzuk ondo etorriko zitzaizkien. Amak Amaia izena zuen, eta andereño bezala egiten zuen lana, aitak Igor izena zuen eta al baitaria zen, anaiak Xabier izena zuen eta lan bila zebilen, ahizpak Leire izena zuen eta bera ere lana bilatzen hari zen eta azkenik Lore oraindik gogor ikasten hari zen.

Udara asko aprobetxatu nahi zuten, lehenengo astea oso oso ondo aprobetxatu zuten. Goizean 11:30 tan esnatzen ziren, geroago terraza handi bat zeukaten eta bertan lasai lasai gosaltzen zuten, dutxatu, lagunekin pistara joan, eta horrela... Izozkiak jan eta janez... Baina momentu horiek bukatu egin ziren. Egun batean Lore, Leire eta Xabier etxera iritsi ziren eta segituan bere amak eta aitak beraiekin hitz egin nahi zuten. Amak eta aitak esan ziena oso garrantzitsua zen, handitzen zihoazela eta dirua aurrezten joan behar zutela esan zien amak eta aitak. Hiru anai-arrebak harriturik gelditu ziren eta esan zuten:

- Eta nondik aurreztuko dugu dirua?-esan zuen Leirek.
- Nonbaiten lana egiten lortuko duzue dirua-esan zuen beraien amak.
- Baina udara aprobetxatu egin behar genuen-esan zuten hiru anai-arrebek batera.
- Guk ezin dugu hiruentzat unibertsitatea ordaindu-aitak.

Xabier, Leire eta Lore beraien gelara joan ziren. Gelan hitz egiten hasi ziren eta nahiz eta Lore langilea izan ez zuen lan egin nahi. Xabier ez zen oso langilea baina esan zuen lanean hasi behar zutela dirua lortzeko. Leirek arrazoia eman zion Xabierri eta hirurak pentsatzen hasi ziren ea ze lan egin beharko zuten udaran.

- Niri arropa dendakoa gustatzen zait, eta izebak arropa denda dauka...- esan zuen Leirek.
- Baina taberna batean egiten badugu lan?, nire lagun baten aitak taberna bat dauka eta lana behar duela esan dit Jonek-esan zuen Xabierrek.
- Niri berdin zait- esan zuen Lorek.

Lore bihotz oneko neska da eta horregatik esan zien berari berdin zitzaioela ze lan egin. Leire eta Xabier ez ziren adosten, biak burugogorrek baitira, baina azkenean erabaki zuten pixka bat tabernan eta pixka bat arropa dendan. Lehenengo arropa dendan hasi ziren lanean beraien izebari laguntzen. Leirek eta Lorek oso ondo egiten zuten lana baina Xabierrek ez zuen balio arropa saltzeko.

- Laguntza behar duzu?- galdetzen zion izeba Arantxak
- Ez ez moldatzen naiz...- esaten zuen Xabierrek kokoteraino egonda.

Leirek eta Lorek par egiten zieten Xabierri : Xabierri ez zitzaion ezer gustatzen lan hori baina borondatezko mutila baita eta ez zuen ezer esaten. Gauero leher eginda iristen ziren etxera baina hitz egiten zuten, ea nola joan zitzaien eguna. Lorek eta Leirek oso ongi pasatzen zutela baina nekatuta zeudela. Xabierrek esaten zuen ez zitzaioela ezer gustatzen lan hori. Bi aste egon ziren izebari laguntzen arropa saltzen, baina Xabierrek esaten zuen bere lagunaren aitari lagundu nahi ziola. Leire, Lore eta Xabier asper asper eginda zeuden hiru aste pasa zirenean, lana ez zuten egin nahi baina egin beharra zegoen. Beraien amari esan zien lana ez zutela egin nahi baina amak hau erantzun zien:

- Lana egin behar duzue bestela lana ezingo duzue bilatu.
- Baina nekatu egiten da lana egiten -esan zuen Lorek.
- Eta gainera udaran egonda!- Xabierrek.
- Bueno ba aste bat libre izango duzue -esan zuen aitak, txintxo aurpegia jarriz.

Aste bat pasa ondoren berriro lanera bueltatzeko garaia zen, baina Xabierren lagunaren aitaren tabernara joateko garaia ere... Lore eta Leirek ez zekiten nola lan egin behar zuten eta ez ziren kezatu Xabier bezala... Lanera joan ziren lehenengo egunean lan asko egin behar zutela esan zien. Lore, Leire eta Xabier prest jarri ziren eta esan zien jaiak zirela eta jende asko ibiltzen zela. Xabierren lagunaren aitak erakutsi egin zien nola funtzionatzen zuen kafeterak, alkohola nola prestatzen zen...

- Ikasi al duzue nola lan egin behar den?- galdetu zien Xabierren lagunaren aitak, Joseba izena zuela.
- Bueno... gutxi gorabehera bai, baina lagundu beharko duzu...-Leirek barre egiten
- Bai bai lasai egon- Josebak

Lanean hasi eta oso langileak zirela esan zien Josebak, lan hori gustatu zitzaien baina udara bukatzean lana utzi egin behar zuten. Diru guztia beraien ama eta aitari eman zien eta harriturik gelditu ziren.

- Ai ene hau dena lortu al duzue? - esan zuen beraien amak harriturik.
- Bai, hau dena lortu dugu - esan zuen Xabierrek arro.



Udara bukatzen hasi zela eta... hiru anai-arrebak esan zuten lanean asteko garaia izango zela baina lanean betirako. Ama eta aita ados zeuden beralekin eta aurrera joateko esan zien. Lorek andereñoa izatea erabaki zuen, Leirek albaritaria eta Xabierrek medikua. Lanean hasi aurretik ikasi egin behar da noski.

Lanean hasteko ikasi behar zen guztia ikasi zuten. Lanean hasteko ez zuten problemarik izan eta asko gustatu zitzaien beraien lanak. Xabierri bere lana asko gustatzen zitzaion baina asko ikasketak ez zion graziarik eman...

BI URTE PASA ONDOREN...

Oraindik lanean jarraitzen zuten beraien lanekin noski. Eta ondo ordaintzen zutenez beraien lanekin jarraitzen bazuten bizitzeko dirua edukiko zuten. Orduan pentsatu zuten familia bat sortzea eta... Hirurak aurkitu zuten mutil laguna eta neska laguna. Familia osatuz oso ondo bizi izan ziren.

ANE BENGOTEGIA



AMETSEN MUNDUAN AMESTU

- Kaixo- esan zien Larak bere lagunei, sartzeko esan ondoren, Lararen logelara igo ziren eta hitz egiten hasi ziren.

2003 abenduaren 1-a zen goizeko 10:00. Larak lagun batzuk etxera ekartzea pentsatu zuen etxera, eta Diego, Mario eta Jeruka gonbidatu zituen.

Larak lehengusu bat zuen Rebeka izena zuen, Lara eta bere lagunak gorrotoa zioten eta orduan Rebekak inbidia zien orduan gauza txarrak egiten zizkieten beraiei arratsaldea ondatzeko.

Orduan Jerukak esan zuen:

- zer egingo dugu gaur?- denak sorbaldak uzkuritu eta Mariok esan zuen:
- Irakurtzea daukagu...- Denek ezetz esan zuten eta minutu batzuk pentsatzen egon ziren Bi minutu pasa ondoren Larak armairuari begiratu zion eta koloretako zurrunbilo bat ikusi zuen eta esan zuen:

- EHI armairuan zurrunbilo bat dago goazen barrura- lehenengo pixka bat beldurtu egin ziren baina gero Diego sartu zen eta bere pozezko oihua entzun zen, orduan Mario ere sartu egin zen eta horrela denak sartu ziren barrura.

Barruan zeuden bitartean etxeko atea jo zuen norbaitek, Rebeka zen, Lararen amak atea ireki zuen eta Rebeka logelara igo zenean armairura begiratu eta zurrunbilo barruan sartu zen. Lau lagunak aldatzen hasi ziren Lara sirena eder bat bihurtu zen, Mario liburu bat bihurtu zen eta Jeruka arrai eder batean, Diego berriz arkatx batean.

Diegok esan zuen :

- Arkatz bat nahiz ! zergatik nahiz arkatx bat?- Denak pentsatzen gelditu ziren eta esan zuten:

- Gure izaeraren eta itxurarengatik aldatu gara, zuri idaztea gustatzen zaizu Mariori irakurtzea gustatzen zaio eta liburu bat bihurtu da ni sirena batean bihurtu naiz oso ederra naizelako eta ondo janztea gustatzen zaidalako- denek par maltzur bat egin zuten- Jeruka arrain bat bihurtu da oso azkar ibiltzen delako eta arrain baten antza duelako- denek oinez ibiltzen jarraitu zuten, beraiek ez zekiten Rebeka etorri zela.

Rebeka sorgin eder batean bihurtu zen eta oso arro zegoen berari gaiztakeriak egitea gustatzen zitzaion orduan berak sorgina izanda plan bat zeukan bere lehengusuari egiteko.

Rebeka zuhaitz batean gelditu zen eta esan zuen barre maltzur batekin:

- Hau izango da nere ezkutalekua!!!!

Lara eta Jeruka uretatik zihoazen eta Mario eta Diego leku batera iritsi ziren eta kartel bat zegoen, bertan Malekun jartzen zuen eta denek esan zuten:

- Malekun herria da!!!!!!!- bero handia egiten zuen eta denek krema eman zuten Diegok izan ezik, Diego azal beltzekoa zen eta ez zuen krema ematen.

Lara eta Jeruka ederki ari ziren pasatzen baina Diego eta Mario aspertzen ari ziren orduan esan zuten:

- Gu aspertzen ari gara hementxe geldituko gara - orduan Larak esan zien:
- Etorri gure bizkar gainera eta igerian joango gara!- Diego Jerukaren gainera igo zen eta Mario Lararen gainera denak ongi ongi pasatzen ari ziren, Rebeka iritsi zen arte Rebekak ur jauzi bat sortu zuen orduan zitzu bizian zihozen eta Larak esan zuen:
- oh ez! ur jauzi bat - Lara atzeraka joaten hasi zen baina korrante handia zegoen bitartean Rebeka barrez lehertzen ari zen.

Lau lagunak ur jauzitik bera jeitsi ziren eta segituan atera ziren uretatik:

- Bai arraroa iruditu zait Rebekaren barrea entzun dudala - esan zuen Diegok, Diegok oso belarri fina zuen. Denak ezinezkoa zela esan zuten eta ibiltzen jarraitu zuten, leku eder batera iritsi ziren zuhaitz arrox batzuk zeuden, arroka handiak lorez apainduta eta animaji bitxiak zeuden.
- Gaua iritsi zen lau lagunak lo hartu zuten eta amets arraroak egin zituzten. Esnatu zirenean gauza harrigarri bat gertatu zen, beraiek amestutako pertsonaiak han zeuden beraien begi aurrean:
- - uuuu!!!- oihu egin zuten denek eta Jerukak esan zuen:
- - orain ulertzen dut! hau ametsen mundua da hemen bihurtzen dira amestutako pertsonaiak egiazko pertsonaiekin - denak harri eta zur gelditu ziren.

Bat batean sastraka tartean zeozer zegoela susmatu zuten era sastrakak mugitu zituzten era Rebeka aurkitu zuten:

- - zuk zer egiten duzu hemen - esan zion Larak, Rebekak ez zion erantzun eta nola sorgin itxura zuen erratzaren gainean alde egin zuen.


Denak elkarri begira gelditu ziren eta Diegok esan zuen:

- ur jauziarena Rebekaren gauza izan da.
- Eguna aurrera zihoran eta gauza oso interesgarriak aurkitu zituzten baina etxera itzultzeko garaia zen, baina nola joango ziren horrelako itxurarekin:
- bueno joan egin behar dugu- esan zuen Mariok triste.
- bai baina horrelako itxurarekin?- denak kezkatu etorritako zuloa joan ziren eta esan zuten:
- itzuli gure itxurara bestela ametsen munduan geldituko gara harrapatuta, eta guk ez dugu leku arraro honetan gelditu nahi- orduan ikusi zuten zuloa isten ari zela eta orduan pentsatzen ari ziren eta Mariok Esan zuen:
- gauza txarrak esaten baditugu zuloa itxi egiten da orduan gauza onak esan behar dira gure itxurara bueltatzeko- Mario horregatik zen oso jakintsua abentura guztietan laguntzen zien bere jakintasunarekin, orduan Mario liburu bat zenez eta Diego arkatx bat zenez, Diegok ametsen munduko gauza onak Marioren orri uts batean idatzi zituen eta

denen artean eta altxa egin zuten eguzkiari begira jarriz eta dirdira bat sortu zen beraien gorputzetan eta lehenengo itxurara bueltatu ziren. Baina orduan Lara bere lehengusuz gogoratu eta bere bila joan zen eta zuloko lekuraino ekarri eta esan zion:

- idatzi zeozer polita esan behar duzu ametsen munduari buruz zure itxura berreskuratzeko - Rebekak ez zien kasurik egin, baina azkenean idatzi zuen:
- "oso ongi pasa dut nire lehengusua ur jauzitik bera nola erortzen ikusita ajaja"
- Baina horrek ez zuen balio orduan Larak etxera eraman zuen sorgin itxurarekin, horrela ikasi zuen ez zela zuloa gehiago zirikatatu behar eta handik aurrera denak oso ongi esaten ziren beraien artean eta nahi zutenean ametsen mundura joaten ziren ederki pasatzera denak batera.

ENERITZ JAUREGI



Han goian gertatu zen...

Aspertuta nago, beti nago aspertuta, baina gaur nago aspertuen, ez dut ezer egiteko. Bai, bizilagunaren lorategian pixa egiten saiatu naiz... Nire autoaren gainean jarri eta golfean jolasten ere probatu dut, ia ia ospitalean amaitu dut... Milaka gauza egiten saiatu naiz baina ez naiz ase...

Ah! Ni Peter Anderson naiz, Alemaniakoa... Ez nauzue ezagutzen?! Ai, ai... Lasai, ohituta nago... Baina ala ere zuen laguntza behar dut... Ez dakit eta zer egin... Zer? Beste istorio bat asmatzeko??? Bikain, ideia bikaina da! Baina ni ez naiz idazle horietakoa... Nire istorioak ez dira Bazen Behin... edo Behin batean... hasten, EZ! Nire istorioak honela hasten dira (hasten naizenean jarraitu egingo dut ongi...):

-Nola?!-Oihukatu zion Marie Kuriek- Ez naiz globoan hegaz ibiliko ezertarako erel!

-Baina ez da edozertarako erantzun zion Albertek- Hiru herrialdeetatik igaro eta Kanadara joango gara bakarrik...

- BAKARRIK!!!

Albert ikaragarri izutu zen.

- Bakarrik diozu!!!- Jarraitu zuen Mariek.

- Bueno...- Esan zuen Albertek, zeharo kikilduta- Ez gara bakarrik joango... Steven ere etorriko da...

- Steven!

Albertek baietz esan zion buruaz, ez baizen hitzez esaten ausartzen

- Zientzialari hero hori!!! Ni ez naiz harekin joango... Esan dizudan bezala HEROA dago!

- Ba zu ez bazara joaten... Isaac etorriko da!

Marie pentsatzen gelditu zen.

- Ongi ongi... Joango naiz...

- Bai!!!

Beraz, Albertek Steven-ri deitu eta Marie beraiekin joateko prest zegoela esan zion.

Handik astebetara, hirurak Alemanian elkartu ziren, beren beharrezko gauzekin. Stevenek ekarri zuen globoa, bere gauzekin batera, Albertek janaria eta edariak ekarri zituen, eta Mariek animaliak eta landareak ikertzeko materiala. Prestaketa bukatu zutenean, jende ugari hurbildu zitzaion, zaharrak, gazteak, lagunak...

Handik ordubetera, aireratzeko prest zeudela esan zuten bozgorailuetatik (jende mordoa hurbildu zenez, telebistakoak ere albistea ematera joan ziren eta horregatik zeuden bozgorailuak).

Agurrak, oihuak... Edozer entzuten zen gure hiru lagunak belarrietatik, inoiz ez ziren hain pozik sentitu.

- Beno, joango al gara?

- Nigatik bai.

- Ni ere prest nago.

Eta orduan, soka askatu eta airean urrundu ziren, agur eta oihu horiek laguntzen zieten. Handik oso gutxira, mendien atzetik desagertu ziren.

Orduak pasa ziren, baina bidaiarientzat, minutuak izan ziren, ikusmira ederrari begira baitzeuden.

- Non gaude orain?- Galdetu zuen Mariek.

- Laster mendikatea zeharkatuko dugunez, Brustest herriaren gainean gaude uste dut...

- Ba nik ez dut herririk ikusten...- Esan zuen Albertek, beherantz begira.

- Lainoak daudelako da hori... Eta gainera, oso garaiera altuan gaude...

Handik gutxira zeharkatu zuten mendikatea, Baina altuera ez zuten ondo neurtu, ia ia mendi bat jo zuten.

- Kontuz!!!

Hirurak globotik zintzilik geratu ziren, baina Albertek irrist egin eta belar gainean erori zen, Mariiek (bere lagunari laguntzearren) ere jauzi egin zuen, hondoren Steven ere bota egin zen, ezin baitzuen gora igo. Hirurek globoari eutsiz jarraitu zuten, mendiak igo zituzten, errekek zeharkatu eta maldak jaitsi, Stevenek harkaitz handi bat ikusi zuen arte.

- Heil!- Esan zien lagunei- Eta harkaitz horren laguntzaz igotzen bagara globora?

- Ez dut ulertzen... Nola igoko gara horra gora, harkaitz sinple baten bidez?

- Oso erraza, globoa zuhaitzari lotzen badiogu, harkaitzean zehar igo gaitzke globora, hau altuera berdinean egongo baita.

Hori egin zutenean, aurrera jarraitu zuten.

Gaua iritsi eta Marie eta Steven lotara joan ziren, Albert ingurua zaintzen zuen bitartean. Handik ordubetera, izugarritzko notizia ona eman zien lagunei: Herri baten gainean zeuden!

- Hori Langon da, Frantzian gaude!

- Bai, baina ez dugu denborarik, Londresera irits behar dugu lehenbailehen, jarraian Kanadara joateko... Eta azkar egin beharko dugu.

Hurrengo egunean, hirurak izoztuta esnatu ziren.

- Nonono... Non gaude?- Galdetu zuen Mariiek, totalka.

- Eeeee... Ez dadadakit.

- Uuuuste dudududut Ingalaterran gaudela jajajajadanik.

- Aaaaaaaaatxis!
- Jesus...
- Uste dut katarro ederra hartu dugula...
- Behintzat Londresen gaude...
- Bai zera...
- Bai, Steven, Londresen gaude...

Handik bi ordutara, Stevenen etxean zeuden, kafe bero-beroa hartzen.

- Ni ez naiz Kanadara horrela joango...-Esan zuen Mariék- Ezta pentsatu ere...

- Ni ere ez.-Albertek.
- Egia esan...- Aitortu zuen Stevenek- Hobe gure abentura hemen bukatzen bada... Ezta?
- Bai... Bestela beste modu batera bukatuko genuke...
- Hilda!

Hirurak barrez hasi ziren, eta hantxe geratu ziren, Stevenen etxean, beren kafetxoaz gozatzeko.

Eta espero dut nire bat-bateko ipuina gustatzea, lagunok, eta gogoan izan... Hau:

Han goian gertatu zen.

Amaiera

HOOR YANUZ

DU GHTTI-VEYRON 03,



SORGINAK ETA MUXUAK

Udaberri hasierako egun batean...

Espazioan, Ilargi printzesa, Eguzki printzea eta Artizar printzesa jolasean ari ziren. Ilargi hain ederra zen printzesaz janzten zen, gainera munduko pertsona geago

Artizar "Ilargi" bezain ederra zen, baina lapurrak baino gaiztoagoa zen. Eguzki printzea mutil zintzoa eta ederra zen.

Handik minutu batzuetara, esan zuen Artizarrek: -Nik joan behar dut.

-Nora joan behar duzu?-galdetu zioten Eguzkik eta Ilargik.

-Ezin dizuet esan sekretua da.-esan zuen Artizarrek.

Baina Artizarrek esan zuen bajun, amorru aurpegiarekin:

-Hau amorrua! Ez dut nahi Ilargi eta Eguzki elkarrekin egotea.

Artizar bere gaztelu sekretura joan zen edabe magiko bat prestatzera Ilargirentzat, hauxe esan zuen:

- Ja, ja, ja...! Orain Eguzki nirea izango da!!! Ja, ja, ja...!

Bitartean, Eguzki eta Ilargi jolasean zeudela Artizar etorri zen eta esan zuen ozenki

-Zuretzako da, Ilargi! Zuretzako egin dut.

-Eskerrik asko, limoi zukua prestatzeagaitik- esan zuen

Ilargik, txundituta.- Oso goxoa dago!- esan zuen, baina

geroago esan zuen:- A, a, a, jji. Sorgina bihurtu zen Ilargi eta bere gaztelua joan zen barre maltzurarekin. Artizar

ere joan zen Ilargiren gaztelu ondora. Orduan Eguzkik trumoiak baino tanta gehiago bota zituen, baina erabaki

zuen Ilargiren bila joatea.

Joan zenean "Eguzki" saiatu zen Ilargiri begiak irekitzen

eta lortu egin zuen, baina Artizarrek esan zuen.- Ez! Ez!

Ezzzzz! Orain berriro pastu beharko dut! - Ilargik

ordea esan zuen aserre.

-Ez dut nahi sorgin gaizto bat izan nahi! Artizar!

Oso aserre zegoen Ilargi, Artizarrekin eta beste unibertso batera bidali zuen. Ain kontentu jarri ziren biak muxu bat eman zuten biek eta oso ondo bizi izan ziren.



SATYA

ELURRETAN

Neguko egun elurtsu batean Lur eta Xabier bere gurasoekin elurretara joan ziren. Lurrek 8urte zituen eta Xabierrek 13urte zituen. Lurrek eguzkia bezain ile Oria zuen eta Xabierrek begiak zerua bezain Urdinak zituen.

Elurretara joan zirenean Lur eta Xabier jolasten hasi ziren. Bat batean Xabier desagertu egin zen eta lapur batek bere etxera eramane zuen.

Baina Lur ez zen ohartu. Batean Lur ohartu egin zen eta amari esan zion:

- Ama Xabier desagertu egin da! -esan zuen beldurtuta.
- Nora joan da?-esan zion amak urduri.
- Ez dakit ama bat batean desagertu egin da.
- Jendeari galdetuko diogu-esan zuen amak.
- Bai goazen azkar.

Eta Xabier aurkitzera joan ziren. Ama gogoratu zen hor nonbait lapur baten etxea zegoela eta hara joan ziren. Bat batean lapur bat Xabierrekin ikusi zuten eta azkar azkar lapurrari Xabier askatzera joan ziren eta horren apartez lapurra kartzelara eramateko ere eta poz pozik poliziarri deitu eta kartzelan sartu zuten.

Aitana
Manterda

BOANES 4/3/11

JON AROCENA



MENDIZABAL FAMILIA, TXAKURRARI BEGIRA

Kaixo Ainhoa naiz, 35 urte ditut, ile beltz, andulatu eta luzea dut, argala naiz baina ez oso altua, eskuzabala naiz eta etxean egotea gustatzen zait. Ni ezkondua nago 36 urteko gizon puska batekin ile horia da, oso-oso kizkurra kresta eder batekin, kirolari aparta, lagunekin ateratzea du gustuko eta bere jzena lgor da.

Bi seme-alaba biki ditut, June eta Aitor bi urtekoak eta berdin berdinak, oso alaiak, ile marroiarekin, kizkur-kizkurra, kuadernoen izkiña bezalakoa, oso azkarrak eta nire besarkadak dituzte gustuko.

Bidaiatzea gustatzen zait, ez dakit noiztik baina gazte-gaztetatik. Hamar urterekin Erresuma Batura joan nintzen (udalekuak egitera) eta hain ondo pasa nuen, urtero joatea erabaki nuen.

Orain bi ume polit ditut eta bi urte hauetan ezin izan naiz Erresuma Batura itzuli. Faltan botatzen ditut han ezagutu nituen lagunak, jendea etab. Nire gurasoak, Alaskako irla txiki batean bizi dira eta aurren haiek bisitatzeraz goaz eta June eta Aitor oso urduri daude, beraien lehenengo bidaia egingo dutelako hegazkinez. Oraindik hilabete osoa geratzen da, baina jada ni ere urduri nago.

Hilabete pasa ondoren aireportuan, Mendizabal familia hegazkinean sartzen ...

Hegazkina hartu genuenean, jende ugari zegoen eta maleta askorekin gainera. Aitor eta June txakur bat zuten ezkutuan, nik banekien baina nahiago nuen ez ezer esan oso urduri jarraitzen zutelako.

Txakur hori husky motakoa zen, ile zuri ederrarekin baina triste zegoela ematen zuen. Neuk pentsatu nuen elurraren falta sentitzen zuela eta horregatik zegoela hegazkin honetan.

Hegazkinez ez ginen zuzenean Alaskara etorri, Estatu Batuetangeldialdegi aginaz baizik. Hegazkinetik jaitsi zirenean, txakurra ziztu bizian desagertu zen, ez zuelako jendeak ikustea nahi. Txakurra galduta zebilen, ez zekien nola iritsi elurra zegoen lekuraino eta kasualidadez oso-oso buru-argia zen eta Alaska jartzen zuen seinale bat ikusi eta handik habitu zen.

Bidean, Pastor aleman arrazako txakur handi batek eraso egin zion baina husky-ak oso korrikalari azkarrak direnez, ez zuen harrapatu.

Hurrengo aireporturaino joan zen korrika eta berriz ere hegazkinean ezkutuan sartu zen eta Alaskaraino eraman zuen hegazkinak.

Alaskan...

Mendizabal familia bost egun atzeratu ziren baina txakurra salbu eta sanu zegoen elurrarekin, baita gustora ere. Mendizabal familiak ikusi zuenean, Aitor eta June asko poztu ziren eta txakurra ikusi ondoren. Gu hegazkinez gindoazen bitartean, hori dena ikusi egiten zen hegazkina poliki eta oso baxu zihoalako.

Aitor eta Junek Aiton - Amonak ikusi zituztenean, korrika bizian joan ziren besarkada bat ematera baina bidean harri batekin estropoz egin zuen Junek eta eskuineko eskua puskatu zuen. Txakurra beraren gana joan bizkarrean hartu eta hospitaleraino eraman zuen June eta ni oso beldurtuta nengoen.

Abentura horren ondoren, txakurra etxean hartu genuen eta beste hilabete baterako han egon ginen, Juneren eskua sendatu arte alegia. Itzulitakoan hegazkineko zaindaria ez zigun utzi txakurrarekin etxera bueltatzen eta Estatu Batuetaraino joan zen aurrekoan bezala. Estatu Batuetan, txakurra maletan hartu eta pentsatu genuen hobe zela txakurra Alaskan uztea eta txakurra bertara joan zen Aitor eta juneren Aiton eta Amonekin bizitzera.



Etxera iritsi ginenean, urtero joatea erabaki genuen ni Erresuma Batura bezala eta bideoak bidaltzeko modu bat aurkitu eta txakurra, Aitonak eta Amonak, egunero hitz egiten zuten gurekin.

MAREN BARRIOCA

Aitza

ARZ-GARA

ASIEK AKDILU



I.gerra mundiala

Tilin - tilin jo zuen mendi ganean zegoen pertsonak. Orduan Mosku herri osoa hankaz gora jarri zen. Denek zekiten zer esan nahi zuen tilin-tilin horrek: arriskua, armadaren bat hiria atakatzera zihoala. Baina Moskuko armada prestatzerako Asiako armada iadanik hirira iritsi zen eta hiria suntsitzen hasi zen. Pixkanaka-pixkana hiri osoa suntsitu eta hiriko jende guztia hil zuten, baina ume batek lortu zuen bizirik mantentzea, Volskak.

Volskak 11 urte zituen eta bere aitona erakutsi zion ezkutalekuari esker salbatu zen. Oso ume zelarik, aitona gerrako istorioak kontatzen zizkion eta bere gerra garaian erabili zuen ezkutalekura ere askotan eraman zuen. "Noizbait ezkutatu beharrean bazara, erabil ezazu... ez zaituzte hemen sekulan topatuko" esaten zion maiz. Gau hartan, bere aitak ohetik jaiki zuenean, aitona esandako ezkutalekura joateko garaia iritsi zela konturatu zen... Volska triste joan zen bere ezkutalekura, familia gerran utzita. Gau gogorra izan zen baina goizaldean poztu egin zen bere aitona ezkutalekuan gordetzen zituen gauzak ikustean: mapa bat, motxila bat, linterna... Bi egun egon zen Volska ezkutalekuan, ezkutatuta, soldaduak urundu arte.

Aitona utzitako motxila, mapa, linterna... ganean hartu eta Volska 12 egunez noraezean ibili zen. Han hemen sarraskia besterik ez zen, suntsiketa, heriotza. Umeak bidean zutik zegoen etxe bat bilatu zuen eta etxe hartan lau egun igaro zituen indarberritu arte. Gau haietako batean, "behingoz!", mapa atera eta mapa begiratzea burura etorri zitzaion. Bere gutxi gorabeherako kokapena kontutan izanik gertuen zegoen herrialde baten bila hasi zen: Jugoslavia !!! Bi egunetan iritsi zitekeela pentsatu zuen.

Bigarren bidaia oso gogorra izan zen. Bidean ekaitzak harrapatu zuen, eta bi egun igaro orde, bikoiztu egin zitzaion, aterpe batean ekaitza pasa arte itxaron behar izan zuelako. Hala ere gogor jarraitzeak merezi izan zuen; azkenean Jugoslaviara iritsi zen.

Gezurra bazirudien ere Jugoslaviara oraindik ez zen armadarik iritsi eta jendea eguneroko egin beharretan zebilen: umeak ikastolarako bidean, helduak erosketak egiten... Volskari begiak malkoz bete zitzaizkion, oroitzapenak zetoziolako burura. Kanean gora eta behera ibili zen, haurra zela bere aitarekin Jugoslavian izana zelako,

aitaren anaia bat bertan bizi zelako. Bi egun zubi azpian egon ondoren, azkenean udaletxera laguntza eskatzera joatea erabaki zuen.

Zortez, Volskak udaletxean jende jatorra bilatu zuen. Ondoren, udaletxe barruan zegoela aprobeztatuz alkatearengana joan zen:

- Alkate jauna, ezagutzen ahal duzu Vigolsqui abizena duen gizonik ??- galdetu zion Volskak alkateari.
- Bai ezagutzen dut, eta oso jatorra da, baina zerk erakartzen zaitu hori galdetzea ??- galdetu zion alkateak.
- Nik Errusiako gerratik alde egitea lortu dut, eta osaba da nik dakidanez familian geratzen zaidan pertsona bakarra... esango al didazu bere portalaren zenbakia?- erantzun zion Volskak.
- Zure osaba Marrusquibe kalean, 8. zenbakian bizi da. Laguntzarik behar baldin baduzu etorri ona eta eskatu laguntza, ados ??- esan zion alkateak.

Orduan, Volska bere osaba bizi zen kale alderantz abiatu zen. Volskarentzat sekulako abentura izan zen kale hartaraino iristea. Irtsi zenean tinbrea jo zuen eta bere osabak ireki zion. Volskak, ez zuen ezer ulertzen ordea, beraiek ere motxila bizkarrean hartuta ia etxetik ateratzeko prest zeuden. Volskaren osabak begiekin luzaroan begiratu zion Volskari. Ondoren konturatu zen bere arrebaren semea zela, Volska txikia zenean bere osabarekin joaten baitzen mendira...

Besarkada luze baten ondoren, osabak kontatu zion nola zihoan gauza eta gauza zen gerra Jugoslavian sartzen hasi zela, eta beste leku batera joan behar zutela. Horregatik osabak esan zion berarekin joateko, beraiek zihoazen lekuan salbu egongo zirelako. Bi egunez bidaiatu zuten mendian zehar kamioiez, baina hirugarren eguna ez zen batere zorte onekoa izan, kamioiko gurpila zulatu zitzaielako.

Uste baino gehiago luzatu zen bidaiak, aldatzeko gurpilik gabe topatu zirelako. Gidariak gasolindegira batera oinez joango zela esan zigun, baina zoritxarreko eguna izanik gidariak aldapa batean belauna hautsi zuen. Gidaria ez zela itzultzen ikusirik, eta

egiten zuen hotzak bultzaturik, oinez jarraitzea erabaki genuen. Gaez iritsi ginen kanpamendura, neka neka eginda...

Berehala Volskak ohea egin zuen eta osaba bere ondoan jarri zen. Volskak galdetu zion bere osabari:

- Zer uste duzu egin behar dugula bihar ?
- Ez dut uste denbora luzean hemendik mugitu ahal izango dugunik.- erantzun zion osabak.
- Eta osaba esaniezadazu, kanpamendu hau zer da ?
- Kanpamendu honetara jende asko etortzen da, adibidez gerratatik ihesean dabilen jendea .- erantzun zion osabak.

Volskak hori entzunda lokartzeko trukuarekin, ardiak kontatzeko trukuarekin, lokartzen hasi zen. Ametsetan zegoenean, bere amaren ahotsa entzun zuen. Nola gustatuko litzaiokeen ama besarkatzea... Begiak ireki zituen, amets bat zela pentsatuz, baina ez zen ametsa... bere begiekin ikusi zuen ama bere osabari besarkatzen !!!!! Volska ohiuka hasi zen, ez zekien negar edo irribarre egin.. baina salto batez zutik jarri eta ama besarkatzera joan zen. Gero, familia osoa urbildu zitzaion Volskari eta besarkada pila bat eman zituzten. Egun hori bere bizitzako egunik zoriontsuena izan zen nahiz eta gerra mundialean egon.

Negua kanpamenduan gogorra izan zen baina Volskak pasa zituen egunak kontutan izanik, familiarekin pasa zituen egun haiek arinak egin zitzaizkion. Uda zen gerra mundiala bukatu zela abisatu zutenean eta kanpamendua pixkanaka hustutzen hasi zen bakoitza bere herrira joaten hasi zelako. Volska eta bere familia ere beraien herrira joan ziren eta pixkanaka pixkanaka beraien bizitza normalera itzultzera lortu zuten.




ARDIAK

Egun batean Anek gelako leihotik begiratu zuen eta lau ardi ikusi zituen jolasean. Anek ez zuen lan egitea atsegin eta edozer emango zuela ardi horiek izateko esan zuen. Eskola bukatzean ardiak zeuden menditxora igo zen eta ardiei ardia izan nahi zuela esan zien, ardiak ere Ane izan nahi zuten ikastolara joateko eta asko harritu zen ardiak hitz egiten ikusi zituenean.

Bat-batean armairu baten itxura zuen kaxa bat etorri zen eta barrura sartzeko esan zien, sartu egin ziren eta beraien gorpuak aldatu egin ziren Ane ardia bihurtu zen eta ardia Ane. Hasieran oso dibertigarria zen ardia izatea baina egunak pasa ahala oso aspergarria bihurtu zen, belarra jan behar izan zuen eta nazkagarria zen berari pizza, makarroiak eta izozkiak gustatzen zitzaizkion. Ardia berriz oso gustura jolasten zen futboleko esku pilotan baina notak Anerenak baino hobeak zituen, ardiak hiru lau eta bost ateratzen zituen eta Anek berriz zero borobilak.

Mendira itzuli zen ardiarekin hitz egitera baina ez zegoen bertan ardia oso gustura zegoen Aneren gorputzean, bat-batean armairu magikoa etorri zen ardiarekin. Ardiak Anerekin hitz egin zuen eta Ane ardiaren gorputzean gustura sentitzen hasi zen, berean baino gusturago. Kanpotik ikusten dena ez dela zarena konturatu ziren zarena sentitzen duzuna da, Ane ardia sentitzen zen eta nahiz eta kanpotik gizakia izan bera ardia zen eta ardia gizakia sentitzen zen. Azkenean horrela gelditu ziren Ane ardia eta ardia Ane edo baina nahiz eta arraroa iruditu beraiek hori sentitzen zuten eta horrelakoak ziren.



Maria Gurrutxaga

Orain
2013

Armairuko giltzak

Bazen behin Aimar izeneko mutil azkar bat 9 urte zituen eta ilea beltza zuen, begi marroiak, sudur txikia, gorputz luzea eta hankak ere luzeak.

Txintxoa eta alaia zen, ez zen kaskagorrra

- Ama gosea daukat-esan zuen Aimarrek abaniko bati eraginez
- Zoaz aitonarengana eta eskatu armairuko giltzak
- Aitona, emango al dizkidazu armairuko giltzak?
- Lehenengo esnea nahai dut
- Behi jauna, emango al didazu esnea?
- Belarra nahi dut
- Mendia, emango al didazu belarra?
- Igitaia nahi dut
- Erramintaria emango al didazu igitaia?
- Odolkia nahi dut
- Txerria, odolkia emango al didazu?
- Hezkurrak nahi ditut
- Haritza, emango al dizkidazu ezkur batzuk?
- Lehenengo haizea nahai dut
- Itsasoa haizea nahi dut
- Lehenengo abaniko bat nahai dut
- Orduan nik abanikoa itsasoari, itsasoak haizea haize haritzari, txerriari hezkur, odolkia herra mintariari higitara mendiari, behiari belarra, aitonari esnea, giltzak amari eta



opila barrura!

JREBER IGLESÍAS

Bertso batzuekin nahikoa da

Riley izeneko neskatxa bat naiz. Ameriketatik etorri nintzen eta Donostian bizi naiz, 5 urte nituenean, nire gurasoek ez zuten diru asko eta ez ninduten oso ondo tratatzen. Nire gaixotasunarengatik, itsua nintzen eta ez zuten nahiko diru ni zaintzeko.

1989/09/29-an 12urte bete nituen eta nire gurasoek gauza garrantzitsu bat esan zidaten, kalean bakarrik bizi behar nuen nire bizi osoa. Nire gurasoek segituan utzi ninduten kalean baina bi kartoi, manta handi eta goxo bat, koaderno txiki bat eta axota bat eman zizkidaten.

Gau hori oso gorra izan zen niretzat, baina hurrengo egunean txakur baten zaunkak entzun nituen eta txakur hori niregana etorri zen. Txakur horrek hitz egiten zuen eta bere izena esan zidan, Txatxu izena zuen. Segituan entzun nion eta magikoa ere zela esan zidan.

Hurrengo egunean txakur horrek galdetu zidan ea eskolara joaten nintzen, ezezkoa erantzun nion baina esan nion nire ametsa zela. Txakur horrek bazekien non zegoen herriko eskola eta egun hori eta egunero eskolako leiho batera joaten ginen.

Lau urte ondoren euskaraz hitz egiten ikasi nuen eta bertsoak egiten ere bai. Egunero gutxienez bertso bat egiten nuen eta nire gurasoek oparitutako koadernoan idazten nituen, esan beharra dago oso politik egiten nituela.

Egun batean Txatxuk esan zidan ea nahi nuen nire bertsoak kaleratzea. Nik ezezkoa esan nion, nik ezin nituelako hitzak ondo ahoskatu. Baina txakurrak ideia oso polita eduki zuen: Gu bizi ginen kalearen ondoan super merkatu bat zegoen eta egunero milaka kaxa handi ateratzen zituzten eta berak zeuzkan bi kartoiekin txakurra tapatzen zuten eta txakurrak zekizkienez bertso guztiak berak kantatzen zituen eta nik koadernoan eskuetan hartuta kantatzen ari nintzenaren itxura egiten nuen, baina baldintza batekin ezin zuen inork ez jakin txakurra zela kantatzen ari zena. Nik baiezkoa poz-pez erantzun nion.

Lehenengo egunetik jende asko hurbiltzen zen beraiek entzutea baina noski inork ez zekien txakurra zela kantatzen zuena.

Egun batean emakume bat hurbildu zitzaigun gu adoptatu nahian eta hurrengo egunean udaletxeko gizon sendo batekin etorri zen.

Adoptatuak ginela esan zigun eta gu biok oso pozik jarri ginen. Berak irratian hitz egiten zuenaren lana egiten zuen. Bere etxera joan ginen.

Segituan sumatu zuen zer bait ez zebilela ondo baina guk nola ezin genuen ezkutuan ukatu kontatu egin genion, hobe esanda txakurrak kontatu zuen.

Emakumea harriturik geratu zen. Lehenik jaten eman zigun eta gero telebista ikusi genuen. Ordu t'ardi pasa eta gero biok ohe berdinerara joan ginen eta bikain

lo egin genuen, nire gau hoberena izan zen. Gosaltzen eman zigun eta gero auzoko parkera eraman gintuen. Parkean gizon susmagarri bat zegoen Txatxuren iritziz baina Emmari bere itxura asko gustatu zitzaion baita mutilari Emmaren itxura.

Biak hitz egiten hasi ziren eta ni parkean nengoen bitartean Txatxuk elkarri muxu ematen ikusi zituen. Txatxu oso triste zegoen baita ni ere, batetik Emmak sekretua ea kontatuko zion eta bestetik biak batera egongo zirelako.

Etxera iritsi ginen laurak batera eta guk Emmari eskatu genion gure gelara etortzeko, gelara etorri zen eta bi galdera galdetu genizkion ea sekretua esan zion eta ea bera gure etxean geratu behar zen. Beste aldetik txakurrak esan zion mutil horrek ez zuela itxura ona baina berak ez zion kasurik egin. Emmak esan zigun ez ziola inori kontatuko gure sekretua eta oraingoz jatorra ematen zuela.

Hurrengo egunetan parkera joaten ginen bakoitzean, biak batera egoten ziren elkarren ondoan. Guk parkean ez genien begiratzen.

Hortik hiru hilabeteetara mutila Txatxuri eta niri begiratzen ikusi genion. Guk ere begiratu genion, eta segituan Emma etorri zen mutilaren bila. Emmak galdetu zion ea zertan ari zen eta mutilak egia esan zion: Txakurra begiratzera joaten zela bere etxera eta berak ez zuela Emma maite. Eta egun horretan bertan banandu egin ziren hizketaldi luze baten ondoren.

Hurrengo egunetan gu hirurok bakarrik joaten ginen parkera eta bikain pasatzen genuen!!!!!!!!!!!!

Astelehenean Emmak galdetu zigun ea nahi genuen bere irratiko programara joan irratian bertsoak kantatzera egunero goizeko zortzietan, jendean esnatzeko eta egun on esateko egun berriari. Guri asko gustatu zitzaigun ideia. Eta egitea erabaki genuen.

Lehenengo egunean oso urduri geunden. Kaxa handi batera sartu gintuzten inork ez jakiteko eta arrakasta handia izan zuten gure bertsoek. Horrela egunero, bikain pasatzen genuen!!!!

Irratsaio batean Emmak eskolarako behar ziren materialak eraman zizkidan (koadernoak, liburuak, kartapazioa...). Ni oso pozik jarri nintzen baita Txatxu ere niregatik.

Hurrengo kurtsoan bertan hasi nintzen, hori bai ni bakarrik, Txatxu etxean geratzen zen. Askok ikasi nuen eta lagun handiak egin nituen (Intza, Jon, Martina, Unai...). Baina garrantzitsuena ondo ahoskatzen eta hitz egiten ikasi nuen!!!!




Horrela etxean hirurok hitz egiten genuen ondo baina irratian noski Txatxuk hitz egiten zuen, hori bai inork ez zekien gu hara joaten ginela.

Nire urtebetetze eguna iritsi zen eta Emmak sorpresa handi bat nuela aitortu zidan goizean baina irratian zegoela.

Iritsitakoan nire gurasoak ziren!!!!!! eta gainera ondo jantzita!!!!. Poz handi bat hartu nuen beraiek ikusitakoan!!!.

Eta hau izan da nire gurasoei kontatutako istorio berbera, Emma eta Txatxu ondoan nituela.

NAHIA MURILLO



Xabier Urtecho

Naroa T.

BASERITARRA ETA TRAKTOREA

Bazein behin Jon izeneko mutiko bat. Hernialden bizi zen eta 20 urte zituen. Baserri handi batean bizi zen. Mutikoak ilea motxa zuen, begi berdeak sudur zorrotza, aho txikia eta luzeraz ez zen oso altua.

Egun batean Jon baserritarrari barazkiak ureztatzea bururatu zitzaion. Baratzerako arropa erosoak janztara joan zen. Prest zegoenean ikuilura joan zen mangera piztera. Piztu zuenean barazkiak ureztatzaera joan zen baina oso nekatuta zegoenez, siesta egitera joan zen. Beraz, pijama jantzi eta ohera sartu zen. Loak hartzean, amesten hasi zen. Bere ametsen traktore berde handi bat erosten zuen.


Siestatik jaiki zenean argi zuen traktore berde handi bat erosiko zuela. Horregatik todoterrenoa eta erremolkea hartuta dendara abiatu zen. Dendara iristean, traktoreak asi zen baina ez zitzaion bat bera ere gustatu. Beraz, beste denda batera joatea erabaki zuen. Todoterrenoa eta erremolkea hartu eta beste denda baterantz abiatu zen.

Beste dendara iritsi bezzain pronto, eskaparatean zegoen traktore berde handi bati begia bota zion:

- Zenbat balio du traktore berde handiak?
- 5060 € balio ditu - erantzun zion langileak.

Joni oso prezio egokia iruditu zitzaion eta erosi egin zuen. Oso kontentu buelta zen todoterrenoaren erremolkean traktore berde handi hura jarita.

Aitor Amundarain



GAXUXA PIRATA

Bazen behin Gaxuxa izeneko neskatila bat. Koleta luzea zuen eta zapi bat piratak bezala jarrita. Beti irribarretsu zegoen. Aurpegi alaia zuen, gorputz fina eta hanka sendoak. Aitona jator eta bihurri bat zeukan, Joxe izenekoa. Baita anai bihurri bat ere, Zuriko izenekoa.

Hondartza batera joan behar zuten, beraz denak oso pozik zeuden.

-Noiz iritsiko gara? -galdetu zuten bi anai-arrebek.

-Laister! -esan zuen aitonak irribarre batekin eta pozik. - Laister iritsiko gara!

- Guuaalaaaa! Zein tokiaaaa! -esan zuen Gaxuxak harrituta.

- Gu paseatzera goaz. -esan zuen Gaxuxaren aitak ozen.

-Bale, gu hemen geldituko gara esploratzen! -esan zuen Gaxuxak irrikaz.

-Ederki. -erantzun zuen Gaxuxaren aitak

-Juju !!!!!!! -oihukatu zuen Gaxuxak oso pozik.

Hor gelditu ziren hiruak esploratzen.

-Goazen uharte horretara !-esan zuen Zurikok uhartea adiarazten.

- Ba, goazen ba! -esan zuen Joxek.

- Aitona, zuk ez zeneukan txalupa txiki bat?- galdetu zuen Gaxuxak.

Hor joan ziren uhartera aitonaren txalupan. Uhartera iritsi zirenean, altxorraren mapa aurkitu zuten eta bertako bidea jarraitu zuten. Bat.-batean pirata bat topatu zuten, Peujot pirata. Peujotek piraten istorioak kontatu zizkien. Gero buelta hartu eta gurasoengana itzuli ziren

- Zein ondo pasa dugun!

Unax Amadoriz.

TXOKOLATEZKO UR JAUZIA

Bazen behin Laura izeneko neskatxa bat. Laurari asko gustatzen zitzaion natura. Lauraren lagunik onenak Maria, Irati eta Maren ziren.

- Lauraaaa! Azkar hartu telefonoa, deitzen ari dira.
- Bai ama! Orain!- esan zuen Laurak.
- Bai? Zein da?
- Maria naiz. Nahi duzu Maren, Irati eta nirekin mendira etorri?
- Bai! Joango naiz.- eranzun zuen Laurak.
- Bale! Ba etorri plazara.
- Bale! Oraintxe noa.

Orduan Laurak, ama agurtu zuen.

- Agur ama!
- Nora zoaz?
- Lagunekin mendira.
- Gero arte laura, zintzo ibili.

Plazara joan zen orduan Laura.


- Lagunok! Hemen naiz.- esan zuen Laurak.
- Kaixo Laura!- esan zuten Mariak, Irati eta Marenek.
- Bueno goazen bada!- esan zuen Marenek.

Mendira zihoazela Irati zulo batera erori zen. Hor behean kobazulo zabal eta luze bat zegoen.

- Begira! Begira!Etorri!- esan zuen Iratik.
- Bai! bagoaz! - erantzun zuen Marenek.

Kobazuloan zeuden denak, eta aurreraka jarraitu zuten. Kobazuloa ez zen kobazulo normala, han ia guztia txokolatzkoa zen. Txokolatzeko ur jauzia, txokolatzeko zuhaitzak, txokolatzeko loreak...

- Aiba!- esan zuen Mariak.



U S I L


- Hau dena tokolatezkoa da!
- Bai Maren! Dena txokolatezkoa da!- esan zuen laurak.

Han zeudela, txokolatea jaten hasi ziren. Zuhaitz zati bat, lore batzuk... Bapo bapo eginda gelditu ostean, etxera joatea erabaki zuten. Baina etxera joan behar zutenean, irteera ez zuten aurkitzen.

- Ziur nago handik etorri garela.- esan zuen Marenek.
- Bai! Handik etorri gara.- esan zuen Iratik.
- Aaaah!!!

“Ring, ring, ring ...” entzun zen despertadorea.

Libe Iglesias



Oier Irastorza



Bizia zoriontsu bizi behar da

Bazen behin Goar izeneko mutiko bat amets gaiztoak egiten zituena. Arreba bat zeukan Uxue izenekoa eta bere gurasoekin bizi zen. Egun batean amets hau egin zuen:

“Bazen behin mutiko gaizto-gaizto bat hiltzailea zela eta gauero norbait hiltzen zuela eta gau horretan bere gurasoak hil behar zituen. Goar saiatu zen hori ez gertatzen baina gau horretan Goar Uxurekin diskutitzen zegoen eta bat-batean pun” -eta Goar ametsetik esnatu eta bere amaren gelara joan zen eta esan zion:

-Ama amets gaizto bat egin dut eta beldurrez nago badaukat zure ohean sartzea?-esan zion beldurtuta.

-Bai baina ze amets gaizto egin duzu?-galdetu zion bere amak lokarturik.

-Ezer ez ama ezer ez bihar kontatuko dizut -esan zion amari besarkatzen.

Hurrengo egunean gosaltzen ari zirela amak Goarri galdetu zion ze amets egin zuen baina Goarrek ez zion esan lotsa zeukalako. Orduan Goar ikastolara joan zen oso urduri. Andereñoak galdetu zuen klase guztiari:

-Zer amestu duzue gaur gauean? Eta nolako ametsa izan da?

-Ea Goar lehenengo zu.

-Ba nik gaur ez dut egin ametsik

-Seguru

-Bai eta gainera ez naiz gogoratzen orduan igual zaio benga galdetu beste bati andereño

-Bale, baina niri ez hitz egin horrela inoiz gehiago bestela zigortu egingo zaitut !
ENTZUN !

-Bai barkatu

Orduan Goar larrituta liburuari begira jarri zen berak ez zion nahi horrela hitz egin baina ez zuen nahi kontatu ametsa orduan larritu egin zen. Patioa iritsi zen eta pinponean ibiltzen ziren jolasten baina bazeuden mutiko batzuk buila egiten zutenak:

-Por debajo de la mesa - esaten zuten mahaiari jotzen

-Ixo- esaten zuten beste guztiak. Eta azkenean andereñoa etorri eta:

-Aste bat pinponean jolastu gabe gaizki portatu zaretelako.

Eta denak haserre klasera joan ziren, orduan andereñoari dei bat egin zien klasean telefonoak jo zuen eta denak parrez hasi ziren eta nor izan Goarren ama eta andereñoak esan zion Goarri:

-Goar zure ama da jarri eta atera kanpora hitz egitera- esan zion serio

-Ama?-galdetu zuen Goarrek errekuperatu

-Bai ni naiz Goar etorri segituan etxera zerbait gertatu da joan andereñoarengana eta esan nik esan dizutela- esan zion bere amak negarrez

-Bale- esan zion Goarrek negarrez

-Andereño amak esan dit etxean zerbait gertatu dela joan egingo naiz- esan zion negarrez eta azkar

-Ez lasai nik eramango zaitut goazen- esan zuen gauzak jasotzen.

Orduan kotxea hartu eta ziztu bizian iritsi ziren tinbrea jo eta aita lurrean botata zegoen suizidatu egin zen eta orduan andereñoa ere negarrez hasi eta hor egon ziren ordu erdia eta andereñoa amari besarkada ematen eta Goarrek amari eman zion.

Hurrengo egunean Goar ez zen ikastolara joan eta Uxueri esan zien gertatu zena. Aste batez ez ziren ikastolara joan eta andereñoa egunero joaten zen bisitatzeraz.

-Kaixo- esan zuen Goarrek ikastolara joan zenean

-Kaixo- esan zion bere andereñoak besarkatzen -ondo al zaude?-galdetu zion andereñoak larrituta

-Ondo-esan zuen Goarrek

- Ehorzketara etorri nahi al duzu?-galdetu zion Goarrek lurrera begira

-Bai- esan zion andereñoak pozik

-Gaur arratsaldeko bostetan ondo?-esan zion Goarrek ia negarrez

-Oso ondo Goar, eskerrik asko -esan zion begietara begira

Funerala hasi zen eta banan bana joaten ziren loreak uztera eta hitz egitera berarekin eta bere txanda iritsi zen eta esan zion:

-Aita zu izan zara nire bizitzako aitarik hoberena naiz eta orain ez egon hemen beti egongo zara nire ondoan eta amets gaiztorik ez egiten saiatuko naiz zergatik errealak bihurtzen dira neure kulpaz izan da baina espero dut barkatzea bihotz bihotzez zure umea Goar- eta ezin zuen ia hitz egin negarrez zegoelako.


Eta orduan Uxueren txanda zen eta esan zion:

-Aita asko maite zaitudalako ezin zuen ezta hitz egin.

Orduan funerala bukatu egin zen eta etxera joan ziren eskolara joaten hasi ziren eta gauero ohean otoiz egiten zuten baina oso ondo pasatzen zuten egunero Goarrek azterketarako gehiago ikasi eta lagun gehiago egin zituen eta Uxuek nobio bat egin zuen Aner izena zuen eta oso guapoa zen ikastolako guapoena eta gauero amak oheratu baina lehen esaten diote:

-Beti gure aita gurekin egongo da gure bihotzean eta inoiz ez baduzu ahazten barkatuko dizu.

Eta egun horretatik aurrera egunero zoriontsu bizi ziren eta Uxue eta Goarren harremanak hobetu ziren.



June Mariez Murrena

Artin Saureri

Yokhojo planeta

Bazen behin, planeta misteriotsu bat, Esne bidez kanpo eta Yokhojo zuen izena. Planeta horretan dena natura zen, belarra, ibai garbi-garbiak, planeta bertan, bi eguzki zeuden eta hango animaliak beroarekin zeuden ohituta, eta animali desberdinak eta bereziak zeuden. Zikoreak, Kaskorrak, Marrakuiak, Zolepasak, Kartxunkaloak, Alfiklatoiak...

Denak, zerbait ematen zuten. Adibidez, Zikoreak esnea eta arrautzak, Kaskorrak berriz, igeri egiten zuten eta itsasoko eta erreketako arrainak harrapatzen zituen. Marrakuiak, oso langileak ziren, eta barazkiak landatzen zituzten. Zolepasak, etxeak egiten zituzten, Kartxunkaloak, opariak egiten zituzten (urtetakoak, olentzerorenak, erregetakoak, eta hilabetean behin beraien lanari buruzko liburu bat. Liburuak beste planeta batetik ekartzen zituzten. Alfiklatoiak berriz, bereziak ziren besteek ez zituzten lanak Alfiklatoiak bukatzen zituen, eta beraien munduan behar zen beste gauzak ekarri eta planetako langileenak ziren.

Denak familia bat bezala egiten zuten lan, hau da dena denentzako zen. Behin Zikore baten urtebetetzeak ziren, eta Kartxunkaloak opariak erostera joan ziren Lurrera, baina bi Kartxunkalo Yokhojo planetan Lurreko gizonak, Kartxunkaloak harrapatu eta Zoo batean sartu zituzten. Azkenean Kartxunkalo guztiak hotzaz hil egin ziren. Baina zorionez bi Kartxunkalo geratu ziren Yokhojo planetan, eta handik bi edo hiru urtera beste biak hazi eta ume asko jaio zituzten, gero beraien umeek beste asko eta azkenean, berriro Kartxunkalo asko geratu ziren Yokhojo planetan. Handik pixka batera Yokhojo planetako natura oso-oso aberatsa izan zen. Denak hantxe jolasten ziren erreka urdin-urdinak zeuden hantxe ibiltzen ziren ezkutaketan, harrapaketan, beraien asmatutako hainbat jokoetan..., hain famosoak zen, Unibertso osoan zabaldu zen berri hori. Azken batean, bi Lur planetako gizaki joan ziren planeta argitzera. Han animali guzti-guztiak zoo batean sartu eta beste animali batzuk ezkutatuta geratu ziren. Gero, halako batean espazio ontziko atea ezin zen ireki, baina lortu zutenean espazio ontzia abiatu egin zen. Azkenean, bukatu zen bi pertsona horien bizitza, bonba bat lehertu zen, baina Yokhojo planetako animaliek ahalmen berezi bat zuten. Zorionez, ez ziren hil Yokhojo planetako animaliak eta gainera espaziotik joan ziren animali horiek beraien planetatxora. Hala hango planetatxoan bizi ziren denak. Beste egun batean, Kaskorrak itsasora joan ziren arrain bila, baina bat-batean, marrazo bat agertu, eta Kaskorrak beraien herrirantz abiatu, eta marrazoak jarraitu egin ziren. Beste animali guztiak Alfiklatoiak ezik jolasten zeuden itsaso izkinan, Alfiklatoiak berriz beti bezala lanean. Animalia guztiak harrapatu zituen marrazo horrek, baina Alfiklatoiak lanean zeudenez beraien baratzatxoan, ez zituen harrapatu. Alfiklatoiak, nahi zuten motatako umeak jaiotzeko ahalmena zuten, eta mota guztietako eta ongi hezitako animaliak jaso zituzten. Hantxe ibiltzen ziren lan ta lan gure Alfiklatoiak. Batzuk umeak zaintzen besteak baratzean besteak etxea egiten besteak umeari zertara etorri den mundura erakusten... denetik egin ziren zuten lana Alfiklatoiak. Beste behin Alfiklatoiak, ospitale bat eraiki zuten, eta beste mota bateko animaliak. Animalia horien izena Katamuxarra zen. Alfiklatoi asko azkar hiltzen ziren, lan asko egiten zutelako. Azkenerako mota horrek alfiklatoiak laguntzeko balio zuten, eta gainera azkar hazi eta Alfiklatoiak ez ziren horren


azkar hiltzen. Bat batean tsunami bat joan zen beraien herrira, eta animali guztiak zaurituta geratu ziren Katamuxarak ezik. Katamuxarrak, beste ahalmén bat zuten, eta ez ziren hil eta gainera ospitalera eraman zituzten zauritutako animaliak. Handik pixka batera Lur planetara etorri ziren sendatzeko salda berezi baten osagaiak erostera. Eta azkenean, egin zuten beraien salda berezia. Denei eman zien, eta denak ongi jarri ziren. Azkenetako bakea izan zuten planeta goxo horretan. Handik aurrera denak beraien lana egiten zutenez, denak zoriontsu bizi izan ziren.


Amair ArrosPide



UNAX IGLESIAS







Maren
Barnola